**ARABAKO FORU ALDUNDIA**

IRAGARPENA, «A-3228 Errepidearen Zabalketa, Gogorketa eta Trazadurako Saihesbideak, Elvillar eta Kripan artean A-3220 errepidearekin bere gurutzegunera arte» proiektuaren eraginpean dauden ondasun eta eskubideen titularren zerrenda jendaurrera ateratzeari buruzkoa. 13866

**GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA**

IRAGARPENA, Lasarte-Oriako hiri antolaketa arauen r-15 area -langileen etxeak- aldatzeko testu bateginari buruzkoa. (GHI-010/94-P05-A). 13871

IRAGARKIA, industri area berri bat (11. area) definitzeko Adunako hiri antolaketako arauen aldaketari buruzkoa. (GHI-032/95/P05-A). 13871

**SONDIKAKO UDALA**

IRAGARPENA, Sondikako planeamendurako ordezko arauei lehenengo berrikuskapena egiteko hasierako onarpena emateari buruzkoa. 13872

**DIPUTACIÓN FORAL DE ÁLAVA**

ANUNCIO y lista de afectados relativo a la información pública de todos los titulares de bienes y derechos afectados por el Proyecto de Ensanche, Refuerzo y Variantes de Trazado de la Carretera A-3228 entre Elvillar y Cripan hasta su inserción con la A-3020. 13866

**DIPUTACIÓN FORAL DE GIPUZKOA**

ANUNCIO relativo al texto refundido de la modificación de elementos del área r-15 - casas obreras de las normas subsidiarias del planeamiento municipal de Lasarte-Oria. (GHI-010/94-P05-A). 13871

ANUNCIO relativo a la modificación de elementos de las Normas Subsidiarias de Aduna para la definición de una nueva Área Industrial (Área 11), (GHI-032/95/P05-A). 13871

**AYUNTAMIENTO DE SONDIKA**

ANUNCIO relativo a la aprobación inicial de la 1.ª Revisión de las Normas Subsidiarias de Planeamiento del Municipio de Sondika. 13872

# Xedapen Orokorrak

## OGASUN ETA HERRI ADMINISTRAZIO SAILA

### 4796

464/1995 DEKRETUA, urriaren 31koa, Euskal Autonomi Elkarteko Administrazio Publikoaren barneko ekonomiaren kontrola eta kontabilitatea garatzen dituena.

Euskal Autonomi Elkarteko ekonomia kontrolari eta kontabilitateari buruzko ekainaren 30eko 14/1994 Legeak arautu egiten ditu Euskal Autonomi Elkarteko Administrazio Publikoaren kontabilitateari eta barneko ekonomiaren kontrolari buruzko printzipio gidatzaileak.

Lege horretako azken xedapenetatik bigarrenak baimena ematen dio Jaurlaritzari lege hori araudi bidez garatu dezan. Erraz aplikatzekoa izan dadila, ulerkorra eta arauei lotutakoa. Ez da araudi bakar baten bidez garatuko; areago, lege horretan jasotzen diren arau osagarriak, antolaerari eta prozedurari buruzkoak, onartu daitezke.

Era berean, Eusko Jaurlaritzaren Ekonomi gaietarako Ordezko Batzordeak, 1995eko ekainaren 8an hartutako akordioz, aldeko irizpena eman zien abiaburu orokorrei, hots, Euskal Autonomi Elkarteko ekonomia kontrolari eta kontabilitateari buruzko ekainaren 30eko 14/1994 Legea arauen bidez garatzeko direnei. Halaber,

# Disposiciones Generales

## DEPARTAMENTO DE HACIENDA Y ADMINISTRACIÓN PÚBLICA

### 4796

DECRETO 464/1995, de 31 de octubre, por el que se desarrolla el ejercicio del control económico interno y la contabilidad en el ámbito de la Administración Pública de la Comunidad Autónoma de Euskadi.

La Ley 14/1994, de 30 de junio, de control económico y contabilidad de la Comunidad Autónoma de Euskadi, regula los principios rectores de la contabilidad y del ejercicio del control económico interno en el seno de la Administración Pública de la Comunidad Autónoma de Euskadi.

La Disposición Final Segunda de la misma autoriza al Gobierno para que la desarrolle reglamentariamente con la finalidad de que su aplicación resulte sencilla, comprensible y regular, no previéndose un único reglamento sino la aprobación de diversas normas complementarias que regulen los aspectos organizativos y procedimentales contemplados en la citada Ley.

Igualmente por el Acuerdo de 8 de junio de 1995 de la Comisión Delegada para Asuntos Económicos del Gobierno Vasco se informó favorablemente el marco general para el desarrollo reglamentario de la Ley 14/1994, de 30 de junio, de control económico y contabilidad de la Comunidad Autónoma de Euskadi, así

Euskal Administrazio Publikoaren kontuhartze- eta kontaduritza-kontrolak eta kontabilitatea betetzeko oinarrizko printzipioen aldeko irizpena ere eman zuen.

Legearen 22.1.a) 3 atala garatzen duen urtarrilaren 24ko 66/1995 Dekretua nahitaez aipatu behar da; izan ere, dekretu honen aurrekaria da eta garrantzi handikoa. Egindako gastu moeten banakako zenbatekoak finkatzen ditu dekretu horrek, zenbateko horien gainetik beharrezkoa dela aldez aurretiko fiskalizazioa. Dekretu hori izan zen, beraz, aipatutako legeak arauen bidez izan duen lehenengo garapena. Horren aplikazioak elkartu egiten ditu aministrazio eta prozedura alorreko izapideen liberalizazioa eta areagotu egiten du organo kudeatzaileen ardura. Hori guztiori «Eusko Jaurlaritzaren etapa berri baterako antolaera berri bat» izeneko agirian jasotako prebisioekin bat etorriz egingo da.

Ekonomiaren barne kontrola, helburuari egokitzeari buruzko printzipioaren arabera arautzen da dekretu honetan. Horrek dioenari jarraiki, kontrolpean dauden izaikien nortasun juridikoak, erabilitako kudeaketa ereduak, aurrekontu baliabideen bolumenak eta burututako ekonomi iharduerek EAEko Ogasuntza Orokorrarentzat duten garrantziak dakartzaten premiei egokituko zaie ekonomiaren kontrolari buruzko sistema.

Kontaduritza kontrolaren, kontuhartze kontrolaren eta Euskal Autonomi Elkarteko Administrazioaren kontabilitate publikoaren mekanika tajutzen du dekretu honek. Ekonomiaren eta Administrazioaren alorretako kontuhartze kontrola ez da arau horren menpe jartzen; izan ere, Legearen 2.2 atalean horren garapen berezia jasotzen baita, hots, berorrentzako den araudi bereziaren eta Legean jasotzen diren espezialitateen arabera zertuko dela ezartzen du, eta horren aurrean, kontabilitateaz eta gainontzeko kontrolez 2. atal horretako 1. pasarteak predikatzen duen kontabilitateari eta gainerako kontrolei buruzko erregelak ematezko edo garapenerako arauak jaratzen dira.

Dekretua hiru atalburutan egituratzen da. Arauaren helburuari, kontabilitateari, kontaduritza kontrolari eta kontuhartze kontrolari buruzkoak dira. Euskal Autonomi Elkarteko ekonomia kontrolari eta kontabilitateari buruzko ekainaren 30eko 14/1994 Legean agertzen diren hurrenkerari jarraitzen diote.

Ez da dekretu honen asmoa legearen xedapen guztiak zehatz–mehatz aruatzea. Legea osatu egin nahi du ordea. Horrela, ez da berriz adieraziko legean berariaz araututa dagoena, dekretuarekin zerikusirik izan edo dekretua hobeto ulertzeko izan dadinean izan ezik. Legeak berak beren-beregi osatu behar direla dioen pasarteak baino ezingo dira garatu, eta bai gai instrumentalak edo garapen horrekin loturik daudenak ere.

I. atalburuan finkatzen da zein den dekretuaren helburua. Kontabilitateaz eta kontaduritza kontrolaz arituko da II. atalburua; bi sekziotan garatuko du bere edukia, biak ere idazpuruko bi zatiei buruzkoak. Horri dagokionez, Administrazio Orokorraren eta horren erakunde autonomoen alorreko kontabilitate publikoari eta kontaduritza kontrolari buruzko alderdiak esklusibotasunez garatu dira. Administrazio Orokorreko zein

como sobre los principios básicos para el ejercicio de los controles interventor y contable y de la contabilidad de la Administración Pública Vasca.

Como antecedente previo, aunque no por ello menos importante, ha de mencionarse necesariamente al Decreto 66/1995, de 24 de enero, que desarrolla el artículo 22.1.a) 3 de la ley, a fin de determinar los importes unitarios por tipo de gasto por encima de los cuales es preceptiva la fiscalización previa. Dicho Decreto supone, por tanto, el primer desarrollo reglamentario de la Ley y su aplicación conjuga la liberalización de trámites administrativos y procedimentales, incrementando la responsabilidad de los órganos gestores, todo ello en congruencia con las previsiones del documento «Una nueva organización para una nueva etapa del Gobierno Vasco».

Por otra parte, en el presente Decreto el ejercicio del control económico interno se regula bajo el principio de adecuación al objeto, según el cual, el sistema de control económico se adaptará a las necesidades derivadas de la personalidad jurídica de los entes controlados, del modelo de gestión utilizado, del volumen de recursos presupuestarios, o de la cualidad o trascendencia para la Hacienda General del País Vasco de las actividades económicas realizadas.

El Decreto aborda la mecánica del ejercicio de los controles contable e interventor, así como de la contabilidad pública de la Administración de la Comunidad Autónoma de Euskadi. No obstante queda fuera de esta norma el control interventor en su modalidad económico-administrativa por entender que la propia Ley en su artículo 2.2 prevé un desarrollo aparte del mismo al establecer su ejercicio de conformidad con su normativa específica y las especialidades que se contienen en la Ley, contraponiéndolo a las normas reglamentarias o de desarrollo que de la contabilidad y del resto de controles predica el párrafo 1 del citado artículo 2.

El Decreto está estructurado en tres capítulos, que tratan sobre el objeto de la norma, la contabilidad y el control contable, y el control interventor siguiendo el orden con el que aparecen recogidos en la Ley 14/1994, de 30 de junio, de control económico y contabilidad de la Comunidad Autónoma de Euskadi.

En este sentido, la presente norma no pretende regular exhaustivamente todas las disposiciones de la Ley, sino que su finalidad es complementar aquélla, de tal suerte que, lo que en ésta esté regulado expresamente no se reproduce salvo que por conexión o mejor entendimiento del Decreto sea necesario, y solo se desarrollan apartados que expresamente la Ley llama a ser completados por el reglamento, así como cuestiones instrumentales o relacionadas con dicho desarrollo.

Así el Capítulo I determina el objeto de la norma. El Capítulo II trata de la contabilidad y del control contable, desarrollándose su contenido en dos secciones referidas a cada una de las partes del título. En este sentido se han desarrollado con carácter exclusivo los aspectos relacionados con la contabilidad pública y el control contable en el ámbito de la Administración General y de sus Organismos Autónomos, y solamente respecto

Administrazio Instituzionaleko kontabilitate gaietako arduradunei buruz hitzegiten du Euskal Autonomi Elkarteko ekonomia kontrolari eta kontabilitateari buruzko ekainaren 30eko 14/1994 Legearen 12.3 atalak; arduradun horientzat garatu dira, hain zuzen, Administrazio Orokorreko organoekin izan behar dituzten izaera formaleko berezitasunak.

III. atalburua hiru sekziotan egituratzen da. Lehenengoa, ekonomia- finantza- eta kudeaketa-kontrolari buruzkoa, kontuhartze-kontrolaz arituko da. Euskal Autonomi Elkarteko ekonomia kontrolari eta kontabilitateari buruzko ekainaren 30eko 14/1994 Legean ezarritako zernolakoei eta horren kudeaketan erabiliko dituen baliabideei jarraiki egingo da hori. Kontrol ekonomiko-fiskalaren eragina eta garapena zehazten ditu bigarren sekzioak; izan ere, bere konfigurazio legalean berrikuntzarik gehien sartzen ditu eta horretaz baliatzeak dakartzan berezitasunak finkatuko ditu. Ekonomiaren eta araugintzaren kontrolaz eta berorren ekonomi eta antolaera modalitateez baliatzea arautzen du hirugarren sekzioak, indartu egiten dituela elkarren arteko kudeaketari eta eraginkortasunari buruzko ezaugarriak.

Ondorioz, Ogasun eta Herri Administrazio sailburuaren proposamenez, Jaurlaritzaren Kontseilukak 1995eko urriaren 31n egindako bilkuran aztertu eta onartu ondoren, hauxe

XEDATU DUT:

I. ATALBURUA
XEDAPEN OROKORRAK

*1. atala.*– Helburua.

1.– Ekonomiaren barne kontrola eta kontabilitatea, Euskal Autonomi Elkarteko ekonomia kontrolari eta kontabilitateari buruzko ekainaren 30eko 14/1994 Legean jasotakoa alegia, arautzea da dekretu honen helburua.

2.– Ekonomi eta administrazio alorrak hartzen dituen kontuhartze-kontrola, ekainaren 30eko 14/1994 Legeko III. idazpuruko V. atalburuan jasotakoa, berori arautzen duten xedapenen arabera gauzatuko da, baina ez da dekretu honetan garatuko.

II. ATALBURUA
KONTABILITATEAZ ETA KONTADURITZA KONTROLAZ

1. SEKZIOA
KONTABILITATEA

*2. atala.*– Kontaduritza eragiketen ohartarazpena.

1.– Administrazio Orokorreko organoek eta horiek Administrazio mailan dituzten erakunde autonomoen sailetako agintedun organoek, nahitaez bidali beharko dizkiote Ekonomi Kontrolerako Bulegoari, eragiketa horien edukiaren berri ematen duten kontaduritza–agiriak. Horretarako epea bulegoak ezarriko du, ekonomiari buruzko edukia duen ekintza edo eragiketaren

del artículo 12.3 de la Ley 14/1994, de 30 de junio, de control económico y contabilidad de la Comunidad Autónoma de Euskadi, sobre los responsables en relación con la contabilidad que abarca tanto a órganos de la Administración General, como de la Administración Institucional se han desarrollado respecto de estos últimos aquellas particularidades de carácter formal en sus relaciones con los órganos de la Administración General.

El Capítulo III se estructura en tres secciones, la primera aborda el control interventor en su modalidad de control económico-financiero y de gestión, respondiendo a las características fijadas en la Ley 14/1994, de 30 de junio, de control económico y contabilidad de la Comunidad Autónoma de Euskadi y los instrumentos que utilizará en su gestión. La sección segunda describe el alcance y desarrollo del control económico-fiscal, siendo el que mayores innovaciones introduce en su configuración legal, estableciendo por tanto las particularidades de su ejercicio concreto. Por último, la sección tercera regula el ejercicio del control económico-normativo y de su modalidad económico-organizativa, acentuando sus características de control cogestor y de eficacia.

En su virtud, a propuesta del Consejero de Hacienda y Administración Pública, previa deliberación y aprobación por el Consejo de Gobierno en su sesión de 31 de octubre de 1995,

DISPONGO:

CAPÍTULO I
DISPOSICIONES GENERALES

*Artículo 1.*– Objeto

1.– Es objeto del presente Decreto el desarrollo de la regulación del ejercicio del control económico interno y de la contabilidad previstos en la Ley 14/1994, de 30 de junio, de control económico y contabilidad de la Comunidad Autónoma de Euskadi.

2.– El control interventor en su modalidad económico-administrativa previsto en el Capítulo V del Título III de la Ley 14/1994, de 30 de junio, se sustanciará de conformidad con las disposiciones que lo regulan, no siendo objeto de desarrollo en el presente Decreto.

CAPÍTULO II
DE LA CONTABILIDAD Y EL CONTROL CONTABLE

SECCIÓN 1.ª
LA CONTABILIDAD

*Artículo 2.*– Anotación de las operaciones contables

1.– Los órganos competentes de los distintos Departamentos de la Administración General y de sus Organismos Autónomos Administrativos vendrán obligados a remitir a la Oficina de Control Económico en el plazo que se establezca por ésta en función de la naturaleza del acto u operación de contenido económico, la documentación contable que exprese el contenido de dichas

arabera finkatuko da. Dagozkion frogagiriak edo lagungarriak aurkeztuko dira agiri horiekin batera.

2.– Kontaduritzari buruzko eragiketen banan-banako ohartarazpenak jasoko dira kontabilitate erregistroetan, eta hurrenkera kronologikoan egingo dira. Eta hori, euren bolumen, izaera edo araubide juridikoagatik erantsirik agertu behar duten eragiketen kaltetan gabe.

3.– Egokitzat jotzen den kontaduritza-agirian oinarrituz burutu beharko dira kontaduritza-ohartarazpen guztiak, eta eskudun diren organoek izenpeen bidez eman beharko diete baimena. Ekonomi Kontrolerako Bulegoak, hala ere, kontaduritza-kontrolaz baliatzearen ondorioz antzemandako huts material eta aritmetikoak zuzentzeko, bidezkoak diren kontaduritza–egokitzapenak egin ditzake.

4.– Kontaduritza agiriak betetzeko ereduak eta arauak ezarriko ditu Ekonomi Kontrolerako Bulegoak.

5.– Kudeaketa alorrekoak edo beste izaeraren batekoak diren azpisistemak ustiatzearen ondoren lortzen badira kontaduritza-agiriak, azpisistema horietan utzitako informazio ekonomikoa eta kontaduritza-ohartarazpena egiteko bidalitakoa zehatz-mehatz bat datozela zaindu beharko dute Administrazio Orokorreko eta horren erakunde autonomo administratiboen sailetako agintedun organoek.

*3. atala.–* Gordetzeko araubidea.

1.– Kontabilitatean erregistratutako agiriak eta horiei buruzko frogagiriak indarreango arauetan eta, beharko balitz, Ekonomi Kontrolerako Bulegoak finkatutako artezpideetan ezartzen den moduan gordeko dira. Agiri horien euskarri materiala edozein izanda ere, gordetze araubide hau erabiliko da.

2.– Eurei dagokien ekonomi ekitaldia amaitu eta sei urteren buruan apurtu egingo dira agiri eta frogagiri horiek, legeek beste epe batzuk ezartzen dituztenean izan ezik.

3.– Kontabilitate erregistroak hamabost urtetan gorde beharko dira. Epe horren ostean apurtu egingo dira, kasu berezietarako arauetan ezartzen dena salbuespen lez hartuz.

4.– EAEko sektore publikoaren aurrekontu orokorren eta urteroko kontuen likidazioa epe mugarik gabe gordeko dira.

*4. atala.–* Kontaduritza erregistroak.

Ekonomi Kontrolerako Bulegoari dagozkionak:

a) EAEko eta berorren erakunde autonomoetako Administrazio Orokorraren kontabilitatea informatizatzeko egitasmoak eta programak ezarri.

b) Informatika bidez tratatu behar diren kontaduritza eginkizunak zehaztu, kontabilitate publikoaren alorreko garapen informatikoak onartu eta informatizaturik dauden kontaduritzari buruzko argibideez baliatzeko baimena eman.

c) Kontaduritza erregistroen antolaera, egitura eta euskarri materiala ezarri.

operaciones, acompañada de los justificantes o soportes correspondientes.

2.– Las operaciones contables producirán anotaciones individualizadas por orden cronológico en los registros de contabilidad, sin perjuicio de aquellas operaciones que por su volumen, naturaleza, o régimen jurídico específico deban reflejarse de forma agregada.

3.– Toda anotación contable habrá de realizarse sobre la base del oportuno documento contable autorizado con las firmas de los órganos competentes en cada caso. No obstante la Oficina de Control Económico podrá realizar los ajustes contables pertinentes, a efectos de subsanar los errores materiales o aritméticos detectados en virtud del ejercicio del control contable.

4.– Por parte de la Oficina de Control Económico se establecerán los modelos y las normas de cumplimentación de los documentos contables.

5.– Cuando los documentos contables sean obtenidos de la explotación de subsistemas de gestión o de otra naturaleza, los órganos competentes de los Departamentos de la Administración General y de sus Organismos Autónomos Administrativos deberán velar por la correspondencia exacta de la información económica depositada en aquellos subsistemas y la remitida para su anotación contable.

*Artículo 3.–* Régimen de conservación

1.– Los documentos registrados en contabilidad y sus justificantes se conservarán de acuerdo con lo que establezcan las normas vigentes y, en su caso, con las directrices marcadas por la Oficina de Control Económico, aplicándose el presente régimen de conservación cualquiera que sea el soporte material de los mismos.

2.– Los documentos y justificantes citados serán destruidos pasados seis años desde la finalización del ejercicio económico al que se refieran, salvo que por las leyes se establezcan otros plazos.

3.– Los registros de contabilidad habrán de conservarse durante un período de 15 años, pasado el cual serán destruidos, salvo lo que para casos particulares dispongan otras normas.

4.– La liquidación de los Presupuestos Generales y las Cuentas Anuales del Sector Público de la Comunidad Autónoma de Euskadi se conservarán indefinidamente.

*Artículo 4.–* Registros contables

Corresponderá a la Oficina de Control Económico:

a) Establecer los planes y programas de informatización de la contabilidad de la Administración General de la Comunidad Autónoma de Euskadi y de sus Organismos Autónomos.

b) Determinar las tareas contables que hayan de tener tratamiento informático, aprobar los desarrollos informáticos en materia de contabilidad pública, y la autorización del acceso y uso de la información contable informatizada.

c) Establecer la organización, estructura y soporte material de los registros contables.

d) Ondareari, finantza-gaiei edo kontaduritza erregistroetan integratzeko orduan eragin ekonomikoa duten beste alor batzuei buruzko eragiketei dagozkien xehetasunak aurkezteko modua ezarri.

e) EAEko Administrazio Publikoko beste organo batzuen erregistroak, baldin eta horien argibideak kontabilitatearen euskarri gisa beharrezkoak badira, kontabilitatearen erregistro laguntzaile lez deklaratu. Deklarazio horrek, kontabilitateari dagokionez, erregistro horien antolaera, egitura eta kudeaketa modua finkatzea dakar.

f) Erantsirik agertu beharko luketen eragiketak zehaztu.

*5. atala.*– Kontaduritzari buruzko argibideez baliatzea.

1.– Ekonomi Kontrolerako Bulegoak Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratuko ditu laburpenak hiruhilabetero, hurrengo hilabetetik hasita. Laburpen horiek EAEko Administrazio Orokorraren aurrekontuetan jasotako kredituen exekuzio-egoeraren eta horietan egon daitezkeen aldaketen berri emango dute. Sailka eta atalburuka tajutuko dira.

2.– EAEko Administrazio Publikoko zuzendaritza eta kudeaketa organoek kontaduritza argibideez baliatu ahal izango dute, euren baliabideak zuzen kudeatzeko beharrezkoak gertatzen bazaizkie. Horien barne sartuko dira, beti, organo horiek kudeatutako gastu eta dirusarreren exekuzioan erregistratutako eragiketak eta bai euren agintepekoak izan daitezen eragiketak ere.

3.– Entitate eta enpresa publikoek zein pribatuek, eta bai partikularrek ere, kontabilitatean erregistratutako xehetasunen ziurtapena eska diezaiokete, nahi dutenean, Ekonomi Kontrolerako Bulegoari, baldin eta xehetasun horietan zordun, titular edo hartzekodun lez agertzen badira; eta hori, espedienteak kudeatzen dituzten sail edo organoen bidez egingo da.

4.– Entitate eta enpresa publikoek zein pribatuek, eta bai partikularrek ere, aurreko idazatietan jasotakoaren kaltetan gabe, kontaduritzari buruzko argibideez balia daitezke. Horretarako, beharrezkoa izango da, indarrean dauden legeek agintzen dutenen arabera, eskatutako xehetasun horiek ez daitezela egon erreserbaren pean edo isilpekotasunaren pean, eta ez daitezela hautsi hobeto babestu behar diren hirugarren batzuen interesak. Zehaztu egin beharko dira eskatzen diren argibideak, duten izaera, hedapena, eragina eta horretarako aurkeztu diren arrazoiak.

*6. atala.*– Kontabilitatearekin zerikusirik duten arduradunak.

1.– Ondorengo pasarteetan adierazten diren erantzukizunak ditu Ekonomi Kontrolerako Bulegoak, indarreango arauetan jasotzen diren gainerakoen kaltetan gabe:

a) Eragiketa bakoitzari dagozkion kontrolak, fiskala eta kontaduritzari buruzkoa, gainditu ondoren bidal dakizkion agirietan jasotako xehetasunak erregistratu.

b) Aplikagarriak gerta daitezen arau eta printzipio kontableen arabera kontaduritza saldoak aztertu, kontabilitateari dagozkion helburuak bete ditzaten. Bidez-

d) Establecer la forma de presentación de los datos correspondientes a operaciones patrimoniales, financieras, u otras con trascendencia económica a efectos de su integración en los registros contables.

e) Declarar como registros auxiliares de la contabilidad aquellos registros de otros órganos de la Administración Pública de la Comunidad Autónoma de Euskadi cuya información resulte necesaria como soporte de la contabilidad. Dicha declaración conllevará la determinación de su organización, estructura y modo de gestión de los mismos en los aspectos relacionados con la contabilidad.

f) Determinar las operaciones que deban reflejarse de forma agregada.

*Artículo 5.*– Acceso a la información contable

1.– La Oficina de Control Económico publicará en el Boletín Oficial del País Vasco con carácter trimestral y dentro del trimestre siguiente, los resúmenes por Departamentos y por Capítulos del estado de ejecución de los créditos contenidos en los Presupuestos de la Administración General de la Comunidad Autónoma de Euskadi, y de sus modificaciones.

2.– Los órganos de dirección y gestión de la Administración Pública de la Comunidad Autónoma de Euskadi tendrán acceso a la información contable necesaria para la correcta gestión de sus recursos, abarcando, en todo caso, a las operaciones registradas en ejecución de los gastos e ingresos gestionados por los mismos o sobre los que sean competentes.

3.– Las entidades y empresas públicas o privadas y particulares podrán recabar en todo momento de la Oficina de Control Económico, a través de los Departamentos u Órganos gestores de los expedientes, certificación de los datos registrados en contabilidad en los que figuren como acreedores, deudores y titulares de cobros o pagos.

4.– Sin perjuicio de lo previsto en los apartados anteriores, las entidades y empresas públicas o privadas y los particulares podrán acceder a la información contable, siempre que con respecto a la legislación vigente no estén sujetos los datos requeridos a reserva o confidencialidad y no se vulneren intereses de terceros más dignos de protección, debiendo precisar concretamente la información que se solicita, su naturaleza, extensión, alcance y las razones que lo fundamentan.

*Artículo 6.*– Responsables en relación con la contabilidad

1.– La Oficina de Control Económico, sin perjuicio de las demás previstas en la normativa vigente tiene las siguientes responsabilidades:

a) Registrar los datos contenidos en la documentación que se le remita una vez superados los controles fiscal y contable que correspondan a cada operación.

b) Analizar los saldos contables, de acuerdo con las normas y principios contables que resulten de aplicación, a fin de que cumplan con las finalidades de la

kotzat jo daitezen argibideak eskatuko zaizkie dagozkien organoei.

c) Kontaduritza agiriak eta kontabilitateari buruzko erregistroak egokiro eta tajuz gorde dekretu honetako 3. atalean jasotako epearen barruan.

d) EAEko Administrazio Orokor eta Instituzionaleko izaikiek eta horietako partaide izan daitezeneko enpresek duten iharduerarekin zerikusirik izan eta Jaurlaritzari eta bai Ekonomia gaietarako Ordezko Batzordeari aurkeztu behar zaizkion txostenak gertatu.

e) Kontaduritzari buruzko argibideak eskuratu eta aurkez diezazkioten argibideei buruzko eskabideak ebatzi.

f) Kontaduritza-ziurtagiriak EAEko Administrazio Orokorrerari eta horren erakunde autonomoei bakarrik eman.

2.– Kontabilitatearen erantzukizuna duten organoek, ekainaren 30eko 14/1994 Legeko 12.3 ataleko a) eta c) letretan jasotakoak hain zuzen, honako ardura hauek izango dituzte:

a) Kontaduritzaren gai izan behar duten eragiketen errealitatea eta legaltasuna berma dezaten kudeaketa prozeduren arauzkotasunaz arduratu.

b) Ekonomi Kontrolerako Bulegoarekin batera lan egin kontabilitatearen egiaztapen- eta ikuskapen-lanetan, eta eska diezazkion argibide guztiak eman.

3.– Kontabilitatearen erantzukizuna duten organoek, ekainaren 30eko 14/1994 Legeko 12.3 ataleko d), e) eta f) letretan jasotakoak hain zuzen, honako ardura hauek izango dituzte, merkataritzako araudi sustantiboak orokotasunez ezartzen dituen erantzukizunen kaltetan gabe:

a) Kontaduritzari buruzko argibideak eskuratu eta aurkez dakizkien argibideei buruzko eskabideak ebatzi, indarreango arauek gai horri buruz ezar dezatenaren kaltetan gabe.

b) Kontaduritzaren gai izan behar duten eragiketen errealitatea eta legaltasuna berma dezaten kudeaketa prozeduren arauzkotasunaz arduratu.

c) Ekonomi Kontrolerako Bulegoarekin batera lan egin kontabilitatearen egiaztapen- eta ikuskapen-lanetan, eta eska diezazkien argibide guztiak eman; eta beti, indarrean dagoen araudian ezarrita daudenak.

4.– EAEko sektore publikoa osatzen duten izaiki bakoitzarentzat indarrean dauden arauetan ezarritako epealdiak kontutan hartuz gertatuko dira Jaurlaritzari, Ekonomi Kontrolerako Bulegoari eta Herri-Kontuen Euskal Epaitegiari aurkeztu behar zaizkion kontuak eta egoera-orriak.

Ekainaren 30eko 14/1994 Legeko 12.3 atalean jasotzen diren arduradunen eta horretarako ezarritako pro-

contabilidad, pudiendo recabar de los órganos correspondientes cuanta información se considere oportuna.

c) Conservar adecuada y ordenadamente todos los documentos contables y registros de contabilidad durante el plazo previsto en el artículo 3 del presente Decreto.

d) Elaborar los informes que deban rendirse al Gobierno y a la Comisión Delegada para Asuntos Económicos en relación con la actividad de los Entes integrantes de la Administración General e Institucional de la Comunidad Autónoma y de las empresas de que sean partícipes.

e) Disponer de la información contable y resolver sobre las solicitudes de información que se le presenten.

f) Expedir, con carácter exclusivo respecto a la Administración General de la Comunidad Autónoma de Euskadi y de sus Organismos Autónomos, certificaciones contables.

2.– Los órganos responsables de la contabilidad previstos en las letras a) y c) del artículo 12.3 de la Ley 14/1994, de 30 de junio, tendrán las siguientes responsabilidades:

a) Responder de la regularidad de los procedimientos de gestión que aseguren la realidad y legalidad de las operaciones que han de ser objeto de reflejo contable.

b) Colaborar con la Oficina de Control Económico en el ejercicio de sus funciones de verificación e inspección de la contabilidad, así como facilitar a aquélla cuanta información contable le sea requerida.

3.– Los órganos responsables de la contabilidad previstos en las letras d), e) y f) del artículo 12.3 de la Ley 14/1994, de 30 de junio, sin perjuicio de las establecidas con carácter general por la normativa sustantiva mercantil, tendrán las siguientes responsabilidades:

a) Disponer de la información contable y resolver sobre las solicitudes de información que se les presenten, sin perjuicio de lo que al respecto establezcan las normas vigentes.

b) Responder de la regularidad de los procedimientos de gestión que aseguren la realidad y legalidad de las operaciones que han de ser objeto de reflejo contable.

c) Colaborar con la Oficina de Control Económico en el ejercicio de sus funciones de verificación e inspección de la contabilidad, así como facilitar a aquélla cuanta información contable le sea requerida y en todo caso la que esté establecida por la normativa vigente.

4.– Con la periodicidad establecida por las normas vigentes para cada ente integrante del Sector Público de la Comunidad Autónoma de Euskadi, se elaborarán las cuentas y estados que hayan de rendirse ante el Consejo de Gobierno, la Oficina de Control Económico y el Tribunal Vasco de Cuentas Públicas/Herri-Kontuaren Euskal Epaitegia.

Las mencionadas cuentas y estados serán autorizadas con las firmas de los responsables correspondientes pre-

zeduraren arabera baimena hartu duten langileen izenpeek baimenduko dituzte kontu eta egoera-orri horiek. Jaso egin beharko dira bai dagokien epealdia eta bai agiri horiek benetan aurkeztu diren eguna ere.

5.– Kontaduritzari buruzko argibideak aurkezteko ardura duten agintariek eta langileek, baldin eta arauetan eskatzen diren kontuak ez badituzte aurkezten, edo berandu eta huts larriekin aurkezten badituzte, araua hautsi egin dutela ulertuko da, hori baitio Euskal Herriko Herriogasuntza Nagusiaren Antolarauei buruz indarrean dauden lege xedapenen Testu Bateratuko VI. idazpuruko II. atalburuak, eta hori, iharduera horren ondoriozko erantzukizunen kaltetan gabe.

2. SEKZIOA
KONTADURITZARI BURUZKO KONTROLA
ADMINISTRAZIO ORKORRARRENETA HORREN
ERAKUNDE AUTONOMOEN EREMUAN

*7. atala.*– Kontaduritzari buruzko kontrola gauzatzea.

1.– Kontabilitate Publikoari buruzko Planean eta kontaduritzari buruz ezar daitezen aruetan jasotako printzipioak, kontaduritza zerrendak eta balorapen arauak ezarriz gauzatzen da kontaduritzari buruzko kontrola.

2.– Ekonomi Kontrolerako Bulegoak, kontaduritzari buruzko egitura zehazteko eta kontabilitateko printzipioak eta arauak aplikatzeko, EAEko Aurrekontu Araubideari buruz indarrean dauden legezko xedapenen Testu Bateratuko IV. idazpuruan jasotako aurrekontu orokorren gertatze-prozeduran parte hartuko du.

3.– Ekonomi Kontrolerako Bulegoak jarriko ditu argibideei eta betetze arauei buruzko baldintzak. Jarriko ditu, baita ere, hemen aipatzen den kontrolerako diren kontaduritza agiriekin batera joan behar duten justifikagiriak, dekretu honetako III. atalburuko bigarren sekzioan kontrol ekonomiko-fiskalari buruz ezartzen duenaren kaltetan gabe. Argibideen osotasuna eta kalitatea eta xehetasunen tratamendu zuzena bermatuko duten kontrolak ere ezarriko ditu.

*8. atala.*– Kontaduritza kontrolaz baliatzea.

1.– Ekonomiaren aldetik garrantzia duten ekintza edo eragiketak, indarrean dauden arauen arabera, modu zuzenean kontabilizatzeko erabiliko da kontaduritza kontrola. Oinarritzat kontaduritza agiria eta horrek dituen sorospen-agiriak hartuko ditu. Ondorio horietarako, honako hauek egiaztatuko dira beren-beregi:

a) Kontaduritza inputazio zuzena.

b) Indarrean dauden printzipioei, kontaduritza zerrendei eta balorapen arauei egokitzea.

c) Kontaduritza agiriaren eta horrek dituen frogagiri edo sorospen-agirien arteko elkarkidetasuna.

2.– Kontaduritza kontrolaz baliatzerakoan ekintzaren edo kasuan kasuko ekonomi eragiketaren kontabili-

vistos en el artículo 12.3 de la Ley 14/1994, de 30 de junio y del personal autorizado conforme al procedimiento establecido al efecto, haciendo constar el período a que se refieren y la fecha en que efectivamente son rendidos los citados documentos.

5.– Las autoridades y personal responsable de la rendición de la información contable que omitan la rendición de las cuentas exigidas por las normas, así como las rindan tarde o con defectos graves, incurrirán en infracción en los términos previstos en el Capítulo II del Título VI del Texto Refundido de las disposiciones legales vigentes sobre los Principios Ordenadores de la Hacienda General del País Vasco, sin perjuicio de las responsabilidades de otro orden que pudieran derivarse de su actuación.

SECCIÓN 2.ª
EL CONTROL CONTABLE EN EL ÁMBITO DE LA
ADMINISTRACIÓN GENERAL Y DE SUS ORGANISMOS
AUTÓNOMOS

*Artículo 7.*– Materialización del control contable

1.– El control contable se materializa en el establecimiento de los principios, relaciones contables y normas de valoración recogidas en el Plan de Contabilidad Pública, así como en las normas contables que se establezcan.

2.– La Oficina de Control Económico participará en el procedimiento de elaboración de los Presupuestos Generales previsto en el Título IV del Texto Refundido de las disposiciones legales vigentes sobre el Régimen Presupuestario de Euskadi, para definir la estructura contable y la aplicación de principios y normas de contabilidad.

3.– Por parte de la Oficina de Control Económico se establecerán los requisitos respecto de la información y normas de cumplimentación, así como de los justificantes o soporte que deban acompañar a los documentos contables a efectos del presente control, sin perjuicio de lo previsto en la Sección Segunda del Capítulo III del presente Decreto en relación con el control económico-fiscal. Asimismo establecerá los controles adecuados que garantizen la integridad y calidad de la información y el tratamiento correcto de los datos.

*Artículo 8.*– Ejercicio del control contable

1.– El control contable se ejercerá con el fin de contabilizar correctamente de acuerdo con las normas vigentes, todo acto u operación con trascendencia económica, sobre la base del documento contable y su correspondiente documentación soporte. A estos efectos se comprobará expresamente:

a) La correcta imputación contable.

b) La adecuación a los principios, relaciones contables y normas de valoración vigentes.

c) La correspondencia entre el documento contable y los justificantes o documentos soporte que le acompañen.

2.– En el supuesto que en el ejercicio del control contable se detectaran errores que impidieran la conta-

zazioa eragotzi dezaketen akatsak antzematen badira, Sailari edo Erakundeari emango zaio gora-behera horren berri, baimena eman zuen organoak zuzendu ditzan.

*9. atala.*– Kontaduritza erregistroak deuseztu.

1.– Orokortasunez ekainaren 30eko 14/1994 Legeko 14. atalean xedatutakoaren arabera, eta Euskal Autonomi Elkartearen eta horren erakunde autonomoen Administrazio Orokorra hartuko duela, ofizioz duseztu eta baliogabetu ahal izango ditu kontaduritza ohartarazpenak Ekonomi Kontrolerako Bulegoak, baldin eta, hainbat saldo kontabilitatean egotea justifikatzen duten argibideak dagokion organoari eskatu eta 15 eguneko epearen barruan bidalzen ez badira; edo, bidali arren, indarrean dauden kontaduritza-arauekin bat etorriz nahikotzat jotzen ez badira.

2.– Ekonomi Kontrolerako Bulegoak, halaber, kontaduritza erregistroak deuseztu edo indargabetu ditzake, baliogabetze espedientearen bidez, honako egoera hauetan:

a) Euskal Autonomi Elkarteko Ogasuntza Orokorraren alde aitortutako eskubideak, Euskal Herriko Herriogasuntza Nagusiaren Antolarauei buruz indarrean dauden lege xedapenen Testu Bateratuko 44. atalean ezarritakoaren arabera, indargabetu egiten direnean.

b) Aitortutako obligazio bat edo itxitako ekonomi urteei dagokien ordainketa agindu bat, Euskal Herriko Herriogasuntza Nagusiaren Antolarauei buruz indarrean dauden lege xedapenen Testu Bateratuko 47. atalean ezarritakoaren arabera, indargabetu egiten direnean.

3.– Beharrezkoak baino ordainkea gehiago edo dirusarrera gutxiago egin direla sumatu dezanean Ekonomi Kontrolerako Bulegoak, agintedun organoari emango dio horren berri, bidezkotzat jotzen diren diru-itzulerak eta dirusarrerak lortzeko diren administrazio espedienteak ireki ditzan organo horrek.

III. ATALBURUA
KONTUHARTZE KONTROLA

1. SEKZIOA
EKONOMIA-, FINANTZA- ETA KUDEAKETA-KONTROLA

*10. atala.*– Eragin eremua.

Ekonomia-, finantza- eta kudeaketa-kontrolaren eragin eremu subjetiboa:

a) Administrazio orokorreko sailak eta zerbitzuak.

b) Erakunde autonomoak.

c) Zuzenbide pribatupeko izaiki publikoak.

d) Baltzu publikoak.

e) Entitate eta enpresa publiko edo pribatuak eta EAEko aurrekontu orokorren pentzutan ematen diren dirulaguntzak edo fondo komunitarioak eskuratzen dituzten partikularrak.

bilización del acto u operación económica correspondiente, se dará traslado de dicha incidencia al Departamento u Organismo a fin de que se subsanen o rectifiquen por el órgano que los autorizó.

*Artículo 9.*– Depuración de los registros contables

1.– A los efectos de lo dispuesto con carácter general en el artículo 14 de la Ley 14/1994, de 30 de junio y en el ámbito de la Administración General de la Comunidad Autónoma de Euskadi y de sus Organismos Autónomos la Oficina de Control Económico podrá de oficio depurar y cancelar los asientos contables, cuando solicitada información que justifique la permanencia de determinados saldos en contabilidad al órgano correspondiente, dicha información no se remita por aquél en el plazo de 15 días, o aún habiéndose remitido, se considere insuficiente de acuerdo con la normativa contable vigente.

2.– Igualmente, la Oficina de Control Económico podrá depurar o cancelar los registros contables mediante el correspondiente expediente de cancelación:

a) Cuando los derechos reconocidos a favor de la Hacienda General del País Vasco incurran en prescripción de acuerdo con lo establecido en el artículo 44 del Texto Refundido de las disposiciones legales vigentes sobre los Principios Ordenadores de la Hacienda General del País Vasco

b) Cuando una obligación reconocida o una orden de pago correspondiente a ejercicios cerrados incurra en prescripción de acuerdo con lo establecido en el artículo 47 del Texto Refundido las disposiciones legales vigentes sobre los Principios Ordenadores de la Hacienda General del País Vasco.

3.– Cuando la Oficina de Control Económico advierta que se han producido mayores pagos o menores ingresos de los debidos, lo comunicará al órgano competente, a fin de que se inicien por éste los expedientes administrativos tendentes a la consecución respectivamente, de los reintegros e ingresos que procedan.

CAPÍTULO III
DEL CONTROL INTERVENTOR

SECCIÓN 1.ª
EL CONTROL ECONÓMICO-FINANCIERO Y DE GESTIÓN

*Artículo 10.*– Ámbito de actuación

El ámbito subjetivo de actuación del control económico-financiero y de gestión se extiende en todo caso, a:

a) Departamentos y servicios de la Administración General.

b) Organismos Autónomos.

c) Entes Públicos de Derecho Privado.

d) Sociedades Públicas.

e) Entidades y empresas públicas o privadas y particulares perceptores de subvenciones o ayudas con cargo a los Presupuestos Generales de la Comunidad Autónoma de Euskadi o fondos comunitarios.

*11. atala.*– Baliatzeko modua.

1.– Ekonomia-, finantza- eta kudeaketa-kontrola ikuskaritzako tekniken bidez kontrolatutako sujetuaren iharduera berrikuskatuz egingo da. Dituzten helburuen arabera, honakoak izan daitezke ikuskaritzak:

a) Kudeaketa ikuskaritza.

b) Finantza ikuskaritza.

c) Aurrekontua betetzeari buruzko eta legezkotasunari buruzko ikuskaritza.

d) Prozedurak eta barne kontrola berrikuskatzeko ikuskaritza.

2.– Ekonomi Kontrolerako Bulegoak, kontrol hori behar-bezala garatzeko, behar dituen argibide guztiak eska diezazkieke berorren pean dauden entitateei. Halaber, beharrezkotzat jotzen dituen egiaztapen materialak egin ditzake. Iharduera horren alde ez egin edo laguntzarik eskaintzen ez duten organoek aurre egin beharko diete dagozkien erantzukizunei, horrela xedatzen baita Euskal Herriko Herriogasuntza Nagusiaren Antolarauei buruz indarrean dauden lege xedapenen Testu Bateratuko VI. idazpuruko II. atalburuan. Izan dizakeen beste era bateko erantzukizunen kaltetan gabe egingo da hori.

3.– Ekonomia-, finantza- eta kudeaketa-kontrola Ekonomi Kontrolerako Bulegoko langileek burutuko dute zuzen-zuzenean; edo, bestala, Administraziotik kanpoko baliabideak kontratatuko dira. Azkeneko kasu honetan, ikuskaritzen kontratazioa eta exekuzioa egiteko, Ekonomi Kontrolerako Bulegoak gai horretarako eman ditzan arau eta manuetan ezartzen denari jarraituko zaio, kontratazio eta ikuskaritzaren alorretan indarrean dauden legeetan esaten dena betetzearen kaltetan gabe. Zuzenbide pribatupeko izaiki publikoek eta baltzu publikoek kanpo ikuskariak izendatzeari dagokionean, aldez aurretiko iharduketak ezarriko ditu Ekonomi Kontrolerako Bulegoak, indarrean dauden legeek orokortasunez ezartzen duten prozeduraren kaltetan gabe.

4.– Kanpo ikuskarien lana, Ekonomi Kontrolerako Bulegoak on baderitzo, gura bestean berrazter daiteke eta behar beste kalitate-kontrol egin dakizkioke. Emandako txostenei buruzko sorospen-argibide guztiak eskaini beharko dizkiote bulegoari kanpo ikuskariek.

*12. atala.*– Etengabeko finantza kontrola.

1.– Etengabeko finantza-kontrola, hots, ekainaren 30eko 14/1994 Legearen 18. ataleko 2. idazatiko 1. pasartean jasotzen dena, euren aurrekontu-bolumena, iharduera ekonomikoak edo kudeaketa-ereduak bidezkotzat jotzen duteneko sail, erakunde, zerbitzu, baltzu eta izaiki publikoetan ezar daitezke. Egintza horretarako prozedura eta eragina Ogasun eta Herri Administrazio sailburuak finkatuko ditu.

2.– Kontrol hori garatzeko beharrezkoak izan daitezen ihardueak eta lanak etenik gabe egingo dira hurrengo ekonomi ekitaldietan zehar. Kontrolatu nahi diren iharduera edo egintzen garaikideak izan beharko dute, ahalik gehien, iharduera horiek.

*Artículo 11.*– Forma de ejercicio

1.– El control económico-financiero y de gestión, se ejercerá mediante la revisión posterior de la actividad del sujeto controlado a través de técnicas de auditoría. En función de sus objetivos las auditorías podrán ser de las siguientes clases:

a) Auditoría de gestión.

b) Auditoría financiera.

c) Auditoría de cumplimiento presupuestario y de legalidad.

d) Auditoría de revisión de procedimientos y control interno.

2.– Para el adecuado desarrollo de este control la Oficina de Control Económico podrá recabar en cualquier momento de las entidades sujetas al mismo la información que precise y efectuar las comprobaciones materiales que, en su caso, sean necesarias, incurriendo en las responsabilidades correspondientes los órganos que no colaboren o faciliten dicha actuación, en los términos previstos en el Capítulo II del Título VI del Texto Refundido de las disposiciones legales vigentes sobre Principios Ordenadores de la Hacienda General del País Vasco, sin perjuicio de las responsabilidades de otro orden que pudieran derivarse de su actuación.

3.– El control económico-financiero y de gestión se podrá llevar a cabo directamente por personal de la Oficina de Control Económico o mediante la contratación de medios ajenos a la propia Administración. En este último caso, la contratación y ejecución de las auditorías se regirá por las normas e instrucciones que al efecto se emitan por la Oficina de Control Económico, todo ello sin perjuicio del cumplimiento de la legalidad vigente en materia de contratación y auditoría. Asimismo, la Oficina de Control Económico establecerá las actuaciones previas en relación con el nombramiento de auditores externos por parte de los Entes Públicos de Derecho Privado y Sociedades Públicas, sin perjuicio del procedimiento establecido con carácter general por la normativa vigente.

4.– En todo caso, el trabajo de los auditores externos podrá ser objeto de cualquier proceso de revisión y control de calidad que establezca la Oficina de Control Económico. Los auditores externos estarán obligados a poner a disposición de aquélla toda la información soporte de los informes emitidos.

*Artículo 12.*– Control financiero permanente

1.– El control financiero permanente previsto en el párrafo 1 del apartado 2 del artículo 18 de la Ley 14/1994, de 30 de junio se podrá establecer en los Departamentos, Organismos, Servicios, Sociedades y Entes Públicos cuyo volumen presupuestario, actividades económicas, o modelo de gestión, así lo aconseje, en los términos y con el alcance que se determinen por el Consejero de Hacienda y Administración Pública.

2.– Las actuaciones y trabajos necesarios para su desarrollo, se efectuarán de forma permanente y continuada a lo largo de los diferentes ejercicios. Dichas actuaciones se realizarán, como regla general, sobre la base del principio de proximidad temporal respecto de la actividad o los actos objeto de control.

3.– Kontrolatu nahi den iharduerаren argibide eguneratuak eta zehaztuak jasoko ditu Ekonomi Kontrolerako Bulegoak, argibide horiek ahalik eta ondoen ezagutzeko. Bulegoak berak finkatuko du jasotzeko era eta aldizkotasuna.

*13. atala.–* Kudeaketa ikuskaritza.

1.– Entitate batek burututako iharduerak modu sistematikoan berraztertzea hartuko da kudeaketari buruzko ikuskaritzat. Bere helburuak betetzeko entitate horri gaineratutako baliabide publikoak kudeatzerakoan lortutako eraginkortasuna eta ekonomia ebaluatuko dira. Kontrolatuta dauden izaikiek burutu dituzten politika publikoak ere ebaluatu ditzake, lortutako emaitzak, duten baliagarritasuna eta eragina eta eskainitako zerbitzuen kalitatea aztertu ahal izateko, izandako desbideraketak zuzentzen laguntzeko eta baliabide publikoak kudeatzerakoan ekonomiak errazteko, proposatutako helburuen eta erabilitako medioen arabera.

2.– Entitateak burututako ihardueга edo programa guztiak edo horietariko batzuk har ditzake kudeaketa ikuskaritzaren eraginak, Ekonomi Kontrolerako Bulegoak ezarri dezan moduan.

3.– Dekretu honetarako definizioak:

a) Eraginkortasuna: begiz jotako helburuen lortze maila.

b) Efizientzia: baliabide eta faktore produktiboez ahalik ondoen baliatzea, etekinik gehien atera ahal izateko.

c) Ekonomia: finantza baliabideak, gauzazkoak eta giza–baliabideak erdiestea, bai kalitatearen aldetik zein kopuruaren aldetik kosturik txikiena izan beharko dutela.

*14. atala.–* Finantza ikuskaritza.

1.– Entitate baten kontabilitatea eta ekonomi eta finantza alorretako argibideak berrikuskatzea joko da finantza ikuskaritza lez. Entitatearen finantza-, ondare-eta aurrekontu-egoeraren berri zehatz-mehatza ematen duten begiratuko da, eta bai aplikagarriak diren xedapen eta printzipioei egokitzen zaizkien edo ez.

2.– Kontrolatuta dauden entitateen argibide ekonomiko–finantzieroak eta kudeaketari buruzkoak har ditzake finantza ikuskaritzak burutuko duen berrazterketak, guzti-guztiak izan zein batzuk bakarrik.

3.– Txostenaren egitura eta mamia:

a) Euskal Autonomi Elkarteko eta horren erakunde autonomoetako Administrazio Orokorrarentzat, burututako finantza ikuskaritzatik ondorioztatzen den egoera argi eta garbi aurkezteko Ekonomi Kontrolerako Bulegoak zehaztu ditzanak.

b) Zuzenbide pribatuko izaiki publikoei eta baltzu publikoei dagokienez, Kontuen Ikuskaritzari buruzko uztailaren 12ko 19/1989 Legean eta hori garatzen duen Arautegian jasota daudenak.

*15. atala.–* Aurrekontua betetzeari eta legezkotasunari buruzko ikusakaritza.

Ekonomi eta finantza alorretako kudeaketari eta

3.– La Oficina de Control Económico deberá recibir información actualizada y detallada de la actividad objeto de control, en la forma y con la periodicidad que dicha Oficina determine, a fin de tener un conocimiento completo de la misma.

*Artículo 13.–* Auditoría de gestión

1.– Se entenderá por auditoría de gestión, la revisión sistemática de las actividades de una Entidad con el propósito de evaluar la eficacia, eficiencia y economía alcanzadas en la gestión de los recursos públicos adscritos a la misma para el cumplimiento de sus objetivos. Asimismo, podrá evaluar las políticas públicas ejecutadas por los entes controlados, con el fin de analizar los resultados alcanzados, su utilidad e impacto, la calidad de los servicios ofertados, coadyuvar a corregir desviaciones y facilitar economías en la gestión de los recursos públicos, en función de los objetivos propuestos y de los medios utilizados.

2.– El alcance de la auditoría de gestión podrá abarcar la totalidad o una parte de las actividades o programas llevados a cabo por la Entidad en los términos que se determinen por la Oficina de Control Económico.

3.– A los efectos de este Decreto, se entiende por:

a) Eficacia, el grado de consecución de los objetivos previstos.

b) Eficiencia, la utilización óptima de los recursos y factores productivos al objeto de obtener el máximo rendimiento de los mismos.

c) Economía, la obtención de los recursos financieros, materiales y humanos, tanto en calidad como en cantidad adecuadas al menor coste.

*Artículo 14.–* Auditoría financiera

1.– Se entenderá por auditoría financiera la revisión de la contabilidad e información económico-financiera de una entidad con el objeto de verificar si las mismas representan en todos sus aspectos significativos la imagen fiel de su situación financiera, patrimonial y presupuestaria, y se adecuan a las disposiciones y principios aplicables.

2.– La revisión a llevar a cabo por la auditoría financiera podrá abarcar la totalidad o una parte de la información económico-financiera y contable de las entidades controladas.

3.– La estructura y contenido del informe será:

a) Para la Administración General de la Comunidad Autónoma de Euskadi y de sus Organismos Autónomos los que en cada caso se definan por la Oficina de Control Económico con el objetivo de presentar de forma clara y concisa la situación que se deriva de la auditoría financiera llevada a cabo.

b) Para los Entes Públicos de Derecho Privado y Sociedades Públicas, los que se encuentran recogidos en la Ley 19/1989, de 12 de julio, de Auditoría de Cuentas y en el Reglamento que la desarrolla.

*Artículo 15.–* Auditoría de cumplimiento presupuestario y de legalidad

La auditoría de cumplimiento presupuestario y de

aurrekontua exekutatzeari buruzko ekintzak eta prozedurak arau aplikagarriei edo aldez aurretik zehaztutako helburuei egokitu zaizkien edo ez finkatuko du aurrekontua betetzeari eta legezkotasunari buruzko ikuskaritzak.

*16. atala.*– Prozedurak berraztertzeari eta barne kontrolari buruzko ikuskaritza.

Aplikatutako ekonomi eta finantza alorretako kudeaketari buruzko prozedurak ebaluatzean datza berraztertzeari eta barne kontrolari buruzko ikuskaritza. Horren helburua, antzemandako agiango ahultasun eta disfuntzionalitateetan oinarrituz, hobekuntzak eta aldakuntzak gomendatu eta proposatzea da.

Atxekimendurik gabe eta esklusibotasunez burutu daiteke berraztertzeari buruzko lan hori; edo, bestela, aurreko 14. atalean aipatutako finantza-ikuskaritzen osagarri lez.

*17. atala.*– Dirulaguntza publikoak eskuratzen dituztenen ekonomi eta finantza alorreko kontrola.

Euskal Autonomi Elkarteko Administrazio Orokor eta Instituzionalek, izaera publiko eta pribatuko entitate eta enpresei eta partikularrei, aurrekontu orokorren edo Komunitateko Fondoen pentzutan emandako dirulaguntza, mailegu, abal edo beste era bateko laguntzen erabilpen zuzenari buruzko kontrola, ekainaren 30eko 14/1994 Legeko 17.2 atalean xedatutakoaren ondorioetarako, honako alderdi hauek egiaztatzean datza:

a) Dirulaguntza edo laguntza horiek emateko edo lortzeko beharrezkoak diren baldintzak betetzea.

b) Izaikiak edo partikularrak, eskuratu dituen dirukopuruak, xedapen arauemaileetan eta esleipen-akordioetan jasotako helburuak betetzen erabiltzea.

c) Xedapen arauemaileetan agindutakoa kontutan izanik, dirulaguntzekin lortu nahi diren helburu generikoen lorpen-maila. Eskuratutako dirukopuruak erabili ondoren dirulaguntzadunek benetan lortu dituzten emaitzak kontutan izanik.

*18. atala.*– Ikuskaritzei buruzko urteroko plana.

1.– Aldizkako exekuzioa aurrikusita dagoen ekonomia-, finantza- eta kudeaketa-kontrolari buruzko iharduerak jasoko ditu ekainaren 30eko 14/1994 Legearen 18.3 atalean agertzen den urteroko ikuskaritza planak. Planaren egitasmoa gertatuko du Ekonomi Kontrolerako Bulegoak; kontrolatu ahal izango diren izaikiek eskatutako iharduerak hartuko ditu horrek.

2.– Kontrolatuak izan daitezkeen sujetuek egindako eskabideak urteroko ikuskaritza-planeko egitasmoan sartu edo ez sartu erabakitzeko, Ekonomi Kontrolerako Bulegoari bidali beharko zaizkio plan horretan adierazten den ekonomi ekitaldiaren aurreko abenduaren 1a baino lehen.

*19. atala.*– Ihardueraekin hastea.

1.– Ekonomi Kontrolerako Bulegoko zuzendariak hartutako akordioaren bidez emango zaie hasiera ekonomia-, finantza- eta kudeaketa-kontroleko iharduerei.

legalidad tiene por objeto determinar si los actos y procedimientos de gestión económico-financiera y de ejecución presupuestaria se han ajustado a las normas aplicables, así como a los objetivos previamente definidos.

*Artículo 16.*– Auditoría de revisión de procedimientos y de control interno.

La auditoría de revisión de procedimientos y de control interno consiste en evaluar los procedimientos de gestión económico-financiera aplicados, con el fin de recomendar y proponer mejoras y modificaciones sobre la base de las posibles debilidades o disfuncionalidades detectadas.

El mencionado trabajo de revisión podrá llevarse a cabo de forma independiente y exclusiva o como complemento de las auditorías financieras mencionadas en el artículo 14 anterior.

*Artículo 17.*– Control económico-financiero y de gestión sobre perceptores de subvenciones públicas

A los efectos de lo dispuesto en el artículo 17.2 de la Ley 14/1994, de 30 de junio, el control sobre la correcta utilización y destino de las subvenciones, préstamos, avales o cualquier otro tipo de ayudas otorgadas, por la Administración General e Institucional de la Comunidad Autónoma de Euskadi con cargo a los Presupuestos Generales o provenientes de Fondos Comunitarios, a entidades o empresas de carácter público y privado, así como a particulares, consistirá en determinar o comprobar:

a) El cumplimiento de las condiciones necesarias para la concesión y obtención de dichas subvenciones o ayudas.

b) La aplicación y utilización, por el ente o particular perceptor, de las cantidades recibidas, al destino previsto en la normativa reguladora y en el acuerdo de concesión correspondientes.

c) El grado de cumplimiento de los objetivos genéricos que, de conformidad con su normativa reguladora, se persiguen con las subvenciones o ayudas, teniendo en cuenta los resultados efectivamente logrados mediante la aplicación por sus destinatarios de las cantidades recibidas.

*Artículo 18.*– Plan anual de auditorías

1.– El Plan anual de auditorías previsto en el artículo 18.3 de la Ley 14/1994, de 30 de junio, recogerá las actuaciones de control económico-financiero y de gestión cuya ejecución temporal se prevean realizar. La Oficina de Control Económico elaborará el proyecto del Plan, en el que podrán incluirse las actuaciones solicitadas por los entes susceptibles de ser controlados.

2.– Al objeto de considerar su inclusión en el proyecto del Plan anual de auditorías las solicitudes de los sujetos susceptibles de ser controlados, deberán remitirse a la Oficina de Control Económico con anterioridad al 1 de diciembre del ejercicio anterior al que se refiere el citado Plan.

*Artículo 19.*– Inicio de actuaciones

1.– Las actuaciones de control económico-financiero y de gestión se iniciarán mediante acuerdo adoptado por el Director de la Oficina de Control Económico.

2.– Garatu behar den ikuskaritza-mota eta horren eragina jasota geldituko dira hasiera ematezko akordioan. Ikuskarien ezaugarriei buruzko elementuak ere jasoko dira akordio horretan.

3.– Kontrolaren gai izango den titularrari eta, dekretu honetako 17. atalean araututakoari jarraiki, dirulaguntza eskuratzen duenari emango zaie hasiera ematezko akordio horren berri.

*20. atala.*– Lanari buruzko orriak et iharduerak artxibatzea.

1.– Ekonomia-, finantza- eta kudeaketa-kontrolaren garapenean gauzatutako iharduera guztiak, eta bai lortutako emaitzak ere, lanari buruzko orrietan ageriko dira.

2.– Kontrola gauzatzerakoan gertatutako edo lortutako lan–orrien artxibo osotua eta zehaztua egokitu beharko da, baldin eta erdietsitako ondorioen oinarri lez baliagarriak gertatzen badira.

3.– Lanari buruzko orriak isilpekoak dira eta Ekonomi Kontrolerako Bulegoak baino ezin ditzake euki, eta erabili ere berak bakarrik.

*21. atala.*– Ekonomia-, finantza- eta kudeaketa-kontroleko txostenei buruzko alegazioak.

Egindako berrazterketak ekar dezakeen behin-betiko txostena eman baino lehen, ekainaren 30eko 14/1994 Legeko 19.4 atalean xedatutakoaren ondorioetarako, kontrolatutako sujetuari behin–behineko txosten bat bidali beharko dio Ekonomi Kontrolerako Bulegoak, sujetu horrek, bidezko deritzen alegazioak aurkez ditzan txosten hori eskuratu eta hamabost egun baino lehen. Ekonomi Kontrolerako Bulegoak aztertuko ditu alegazio horiek; onartu ez daitezenak txostenaren eraskinean jasoko dira.

*22. atala.*– Txostenak banatzea.

1.– Ekonomia-, finantza- eta kudeaketa-kontroleko behin-betiko txostenak, ekainaren 30eko 14/1994 Legeko 19.3 atalean xedatutakoaren arabera, ondoren adierazten diren organoei bidaliko dizkie Ekonomi Kontrolerako Bulegoak:

a) Ikuskaritza egin zaion sailburuari, Administrazio Orokorreko edo horren egitura organikoan sartutako zerbitzuei buruzko kontrol-txostenak.

b) Erakunde autonomoetako, zuzenbide pribatuko izaiki publikoetako eta baltzu publikoetako zuzendari edo lehendakariei eta bai horri atxikita daudeneko sailburuari ere, euren iharduerei egindako kontrol ekonomiko-finantzieroaren txostenak.

c) Ekainaren 30eko 14/1994 Legeko 17.2 atalean jasotako dirulaguntzei buruzko ekonomia-, finantzaeta kudeaketa-kontrolari dagokienean, txostena, dirulaguntza esleitu duen izaikiko titularrari eta dirulaguntzaren esleipendunei bidaliko zaie.

d) Ogasun eta Herri Administrazio sailburuari beti bidali beharko zaio txostena. Ekonomia-, finantza- eta

2.– El acuerdo de inicio expresará la clase y alcance de la auditoría a desarrollar o el tipo de control a efectuar. Asimismo, el acuerdo de inicio contendrá todos aquellos elementos relativos a la identificación del personal auditor.

3.– El acuerdo de inicio será comunicado al titular de la gestión objeto de control, así como al destinatario o perceptor de la subvención o ayuda en el supuesto regulado en el artículo 17 del presente Decreto.

*Artículo 20.*– Papeles de trabajo y archivo de actuaciones

1.– Todas las actuaciones efectuadas en el desarrollo del control económico-financiero y de gestión, así como las evidencias obtenidas, se reflejarán en los correspondientes papeles de trabajo.

2.– Deberá formarse un archivo completo y detallado de los papeles de trabajo preparados u obtenidos durante la realización del control y que sirvan de base a las conclusiones alcanzadas

3.– Los papeles de trabajo son confidenciales y de exclusiva utilización y disposición por la Oficina de Control Económico.

*Artículo 21.*– Alegaciones a los informes de control económico-financiero y de gestión.

A los efectos de lo dispuesto en el artículo 19.4 de la Ley 14/1994, de 30 de junio, con carácter previo a la emisión del informe definitivo a que dé lugar la revisión efectuada, la Oficina de Control Económico vendrá obligada a remitir al sujeto controlado un informe provisional con el objeto de que éste presente antes de 15 días desde su recepción, aquellas alegaciones que considere oportunas. Dichas alegaciones serán analizadas por la Oficina de Control Económico y aquéllas que no hayan sido aceptadas, se recogerán expresamente como anexo en el informe.

*Artículo 22.*– Distribución de informes

1.– De conformidad con lo dispuesto en el artículo 19.3 de la Ley 14/1994, de 30 de junio, los informes definitivos de control económico-financiero y de gestión serán remitidos por la Oficina de Control Económico en los siguientes supuestos y a los siguientes órganos:

a) Al Consejero titular del Departamento auditado, aquellos informes cuyo control se haya referido a los Departamentos de la Administración General, o Servicios incluidos en su estructura orgánica.

b) A los Directores o Presidentes de Organismos Autónomos, Entes Públicos de Derecho Privado y Sociedades Públicas, así como al Consejero del Departamento al que estén adscritos, los informes de control económico-financiero realizados sobre sus actuaciones.

c) En los supuestos de control económico-financiero y de gestión por subvenciones o ayudas, contempladas en el artículo 17.2 de la Ley 14/1994, de 30 de junio, el informe se remitirá al titular del Ente que haya concedido la subvención y a los beneficiarios de las mismas.

d) Al Consejero de Hacienda y Administración Pública en todos los casos. Igualmente cuando a juicio

Kudeaketa-kontrolak Ekonomi Kontrolerako Bulegoaren ustez, kalte nabarmenak ekar diezazkionean Euskal Autonomi Elkarteko Ogasuntza Orokorrari, edo horren edukia garrantzizkoa izan dadinean, Jaurlaritzaren Kontseiluari bidali beharko zaizkio txostenak.

2.– Ogasun eta Herri Administrazio sailburuak, ondo deritzonean, jende gehiagori ere bidal diezazkieke berrazterketa txostenak.

3.– Aurreko pasarteetan adierazitakoek baino ez dute izango kontrol-txostenak eukitzeko ahalmena, eta euren gain egongo da txosten horiek ondo erabiltzearen eta zaintzearen ardura.

*23. atala.*– Finantza kontrolerako aktak.

1.– Euskal Ogasuntza Publikoari kalteak eta galerak ekarri dizkion edo ekar diezazkiokeen irregulartasunek, ekainaren 30eko 14/1994 Legeko 20. atalean xedatutakoaren arabera, finantza-kontrolari buruzko akta ekarriko dute eurekin. Akta horiek, hurrengo lerroaldietan esaten deneantxe, bakoitza bere aldetik izapidetuko dira; horrek, ordea, ez dakar garabideetan legokeen finantza kontrola gelditzea edo etetea.

2.– Finantza-kontrolari buruzko aktek jasoko dituzten alderdiak:

a) Ekintzen azalpena.

b) Akta egitea dakarren ekintzaren, agiangoaren edo eragiketaren kalifikazioa, eta hautsitako araua zein den adierazi.

c) Kudeaketaren ustezko irregulartasuna nori egotzi behar zaion adierazi.

d) Dirukalterik badagoela antzematen bada, horren zenbatekoa.

3.– Agiango bakar bati buruzkoak direnean, agiango hainbat irregulartasun pilatu daitezke. Agirien kopia eta beharrezkotzat jo daitezen aurrekariak erantsiko zaizkio eraskinean, era egokian adierazita. Aktek beti izan beharko dute Ekonomi Kontrolerako Bulegoko zuzendariraren baimena.

4.– Egin diren aktak, agiriak eta aurrikinak, finantza-kontrolaren gai den organoaren edo izaikiaren ardu-radunari edo titularrari bidali beharko zaizkio eta, honek, aktan egindako agiango irregulartasunekiko adostasunaren edo ezadostasunaren berri eman beharko dio Ekonomi Kontrolerako Bulegoari 15 eguneko epearen barruan eta zehaztasun hauek aditzera emanez:

a) Aktan irregulartasunak badaudela onartzea gerta dadin kasuan, onarpenaren gai izan diren zuzenketaneurrien berri eman beharko da.

b) Irregulartasunik ez dagoenaren iritzia egotea gerta dadinean, egokitzat jotzen diren oharren berri eman beharko da.

5.– 4. idazatian aipatutako epealdia igaro edo, komunikazioa jaso ondoren, aktaren jatorri izan ziren kausek indarrean jarraitzen badute, Ekonomi Kontrolerako Bulegoak bai komunikazioa eta bai jasotako erantzuna ere gai horretan agintea duten organoetara bidaliko ditu; hauek, Euskal Herriko Foru Ogasuntza

de la Oficina de Control Económico, de los informes de control económico financiero y de gestión se deriven perjuicios significativos para la Hacienda General del País Vasco o su contenido tenga una importancia relevante, se remitirán al Consejo de Gobierno.

2.– El Consejero de Hacienda y Administración Pública podrá ampliar el destino de los informes de revisión emitidos cuando así lo considere necesario.

3.– Únicamente tendrán facultad de disposición respecto de los informes de control los destinatarios indicados anteriormente, siendo éstos responsables del buen uso y custodia de dichos informes.

*Artículo 23.*– Actas de control financiero

1.– Conforme a lo dispuesto en el artículo 20 de la Ley 14/1994, de 30 de junio la existencia de irregularidades que hayan ocasionado o sean susceptibles de ocasionar daños y perjuicios a la Hacienda Pública Vasca, dará lugar a la formulación de la oportuna acta de control financiero. Dichas actas se tramitarán separadamente según lo previsto en los párrafos siguientes, sin que ello suponga paralización o suspensión del control financiero que se estuviese desarrollando.

2.– Las actas de control financiero recogerán los siguientes extremos:

a) Descripción de los hechos.

b) Calificación del acto, supuesto u operación que, a juicio del interventor, genere la confección del acta e indicación de la norma infringida.

c) Indicación de aquél a quien, en su caso, deba atribuirse la presunta irregularidad de gestión.

d) En el caso de evidenciarse la existencia de perjuicios económicos, su cuantificación.

3.– En las actas se pondrán acumular varias presuntas irregularidades siempre que correspondan a un mismo supuesto. Se acompañarán, como anexo y debidamente relacionadas, copia de la documentación y antecedentes que pudieran considerarse necesarios, debiendo ser autorizadas las actas en todo caso con la firma del Director de la Oficina de Control Económico.

4.– Las actas extendidas, acompañadas de la documentación y antecedentes, se remitirán al responsable o titular del órgano u ente objeto del control financiero, el cual deberá comunicar, en el plazo de 15 días, su conformidad o disconformidad con las presuntas irregularidades contenidas en el acta, a la Oficina de Control Económico, realizando las siguientes precisiones:

a) En el caso de aceptación de la existencia de las irregularidades contenidas en el acta, comunicará asimismo las medidas correctoras adoptadas o que se hayan decidido adoptar.

b) En el caso de disconformidad con la existencia de las indicadas irregularidades, señalará las observaciones que al respecto estime adecuadas.

5.– Transcurrido el plazo indicado en el apartado 4 anterior o, si una vez recibida la comunicación persistieran las causas que dieron origen al acta, la Oficina de Control Económico trasladará la misma, junto con la contestación recibida, a los órganos competentes para que inicien las actuaciones oportunas de exigencia de

arautzen duten Printzipioei buruz indarrean dauden xedapenei buruzko Bateratutako Testuko VI. Idazpuruko II. Atalburuan xedatzen denaren arabera, bidezkoak diren erantzukizunak eskatzeko ekintzei ekin diezaieten, jarduera horrek ekar ditzakeen beste maila bateko erantzukizunen kaltetan gabe. Ogasun eta Herri Administrazio sailburuari ere eman beharko zaio horren berri, gaia ezagutu dezan.

2. SEKZIOA
KONTROL EKONOMIKO-FISKALA

*24. atala.–* Kontrol ekonomiko-fiskalari aplika dakizkiokeen xedapenak.

Ekainaren 30eko 14/1994 Legeko 21.2. ataleko bigarren idazatian aipatzen direnen ondorioetarako, honako hauek dira ekonomi-jardunaren fiskalizazioari aplika dakizkiokeen xedapenak: alde batetik, Euskal Autonomi Elkarteko Ogasuntza Orokorraren gai propioak direnei buruzko jardunbide bereziak arautzen dituztenak eta bai horiei buruzko aldeak arautzen dituzten xedapenak ere, beste era bateko edozein araumodu sektorialetan sartuta baldin badaude ere.

*25. atala.–* Aurre fiskalizazioa.

Dagokion egintza, gertakari edo edukin ekonomikoa duen eragiketa eman baino lehen, dekretu honetako 26. atalean aipatzen diren espedienteak aztertzean datza fiskalizazioa, era honetan, espedienteen izapideketa kasu bakoitzari aplika dakiokeen legeei atxikitzen zaiela bermatu ahal izateko.

*26. atala.–* Aurre fiskalizazioari atxikita dauden espedienteak.

Honako espediente hauek egongo dira aurre fiskalizazioari lotuta:

1.– Artez edo zeharka edukin ekonomikoa duten akordioei buruzko proposamenak, horietarako baimena ematea edo horiek onartzea Jaurlaritzaren Kontseiluaren eskuduntza izan dadinean edo horien ezagutza izatea Kontseiluari dagokionean. Diru-sarrera, gastu edo beste era bateko izakera izan dezakete proposamen horiek. Ekainaren 30eko 14/1994 Legean eta dekretu honetako III. Atalburuko 3. Sekzioan xedatzen denaren arabera kontrol ekonomikoaren eta araubidezkoaren gai izan behar duten proposamenak eta xedapenak ez dira horretan sartzen.

2.– Aurrekontuen aldaketak.

3.– Euskadiko Ondareari buruzko uztailaren 27ko 14/1983 Legean jasotzen diren ondare-eragiketak eta Euskal Autonomi Elkarteko Ondareari buruzko eskubide errealak eta kreditu mailakoak eratzeari buruzko eragiketak.

4.– Euskal Autonomi Elkarteko Administrazio Orokorrak eta honen Erakunde Autonomoek, bermeak ematea Euskal Autonomi Elkarteko Diruzaintza Orokorraren pentzutan.

5.– Kontratu edo beste era bateko maila duten gertakari edo eragiketa ekonomikoak, gastuen zenbatekoa finkatu gabe egon dadinean. Diru berriak hartzea edo gastuak bata bestearen ondorengo hiru aurrekontu-eki-

las responsabilidades correspondientes, conforme a lo dispuesto en el Capítulo II del Título VI del Texto Refundido de las disposiciones legales vigentes sobre Principios Ordenadores de la Hacienda General del País Vasco, sin perjuicio de las responsabilidades de otro orden que pudieran derivarse de su actuación, y al Consejero de Hacienda y Administración Pública, en todo caso, para su conocimiento.

SECCIÓN 2.ª
EL CONTROL ECONÓMICO-FISCAL

*Artículo 24.–* Disposiciones aplicables al control económico-fiscal

A los efectos del apartado segundo del artículo 21.2 de la Ley 14/1994, de 30 de junio, son disposiciones aplicables a la fiscalización de la actividad económica no sólo las que constituyen la regulación de los regímenes específicos de las materias propias de la Hacienda General del País Vasco sino también todas aquellas que, contenidas en cualquier normativa sectorial de otra naturaleza, regulan aspectos relativos a las mismas.

*Artículo 25.–* Fiscalización previa

La fiscalización previa consiste en el examen de los expedientes referidos en el artículo 26 del presente Decreto, con anterioridad a que se produzca el acto, hecho u operación de contenido económico correspondiente, con el fin de garantizar que la tramitación de los mismos se ajusta a la legalidad aplicable en cada caso.

*Artículo 26.–* Expedientes sujetos a fiscalización previa

Estarán sujetos a fiscalización previa:

1.– Las propuestas de acuerdo de contenido económico directo o indirecto cuya autorización y aprobación competa al Consejo de Gobierno o cuyo conocimiento le corresponda, ya sean de ingreso, de gasto o de otra naturaleza. No se entenderán incluidas las propuestas y disposiciones normativas que hayan de ser objeto del control económico-normativo, en los términos de la Ley 14/1994, de 30 de junio, y de la Sección 3.ª del Capítulo III del presente Decreto.

2.– Las modificaciones presupuestarias.

3.– Las operaciones patrimoniales comprendidas en la Ley 14/1983, de 27 de julio, de Patrimonio de Euskadi, así como las relativas a la constitución de derechos reales y de crédito relativos al Patrimonio de la Comunidad Autónoma de Euskadi.

4.– La concesión de garantías con cargo a la Tesorería General del País Vasco, tanto por parte de la Administración General de la Comunidad Autónoma de Euskadi como de sus Organismos Autónomos.

5.– Los hechos u operaciones económicos tanto de carácter contractual como de otra naturaleza que puedan dar lugar a gastos de cuantía indeterminada, y los que supongan compromisos tanto de ingreso como de

taldietarako edo gehiagotarako konpromezuak ekar ditzaketen eragiketak edo gertakariak.

6.– Unitate bakoitzaren gastua arauz finkatuta dagoen gastua baino goragokoa ekar dezaketen gastu-espedienteak ere aurre fiskalizazioari atxikita egongo dira.

*27. atala.*– Aurre fiskalizazioari atxikita ez dauden espedienteak.

Aurre fiskalizaziotik kanpo gelditzen dira:

1.– Kontratazioei buruzko arauteria sustantiboan, zenbatekoa kontutan hartuz definitzen diren kontratu txikiak.

2.– Langile-kontratuak eta, horiek indarrean dirauten bitartean, gerta daitezkeen inguruabarrak.

3.– Bata bestearen ondorengo eta aldian-aldiango traktoei buruzko kontratuak, han jatorria izan dezakeen egintza, hastapen-aldia edo aldaketak fiskalizatu ondoren.

4.– Euskal Autonomi Elkarteko Aurrekontu Orokorretan banan-banan izendatu diren dirulaguntzak. Dekretu honetan xedatzen denaren ondorioetarako, honako hauek gerta daitezenean ulertuko da dirulaguntza banan-banan izendatuta dagoela, hau da, Euskal Auotonomi Elkartearen eta bere Erakunde Autonomoen aurrekontuetako gastuak osatzen dituzten edozein aurrekontu-kredituetan, onuraduna, bereziki eta argi eta garbi aipatuta egon dadinean.

*28. atala.*– Aurre fiskalizazioari buruzko txostena.

1.– Gastuetarako edo diru-sarreretarako proposamenak eta beste era bateko espedienteak izan daitezenean, 25. atalean aipatzen den azterketa eta, ondorioz, fiskalizazio-txostenak, espedientean eman daitezkeenetatik azkenengoa izan behar du derrigor. Hori horrela, aurre fiskalizazioa egin ondoren, proposamenari inarpena eman behar dionaren ezagutzapean jartzea eta, hala behar izan dadinean, izenpetzea izango da beharrezkoa.

2.– Aurre fiskalizazioari atxikita dauden agiri eta espedienteen kasuetan, agiria Ekonomi Kontrolerako Bulegoan jaso dadin egunetik hasi eta 15 eguneko epearen barruan eman beharko da fiskalizazio-txostena, agiri guztiekin batera.

3.– Diruzaintzan eta/edo kontaduritzan eragina duten espedienteak edo agiriak izan daitezenean, aplika daitezkeen arauen arabera bidezkoak izan daitezkeen kontaduritza-agiriak aurkeztu beharko dira.

4.– Kontuhartzailearen sinadura-bidez gauzatuko dira aldezko txostenak aurreko lerroaldiei dagokienetan. Hala ere, kontuhartzaileak, egokitzat jo dezanean, nahi hainbateko hedadura duen txostena gertatu ahal izango du.

*29. atala.*– Ziurtapen fisikoa.

1.– Obren, horniduren, sorospenen, ohikoak ez diren lan berezi eta zehatzen eta zerbitzuen ziurtapena, beroien konprobazio materiala eginez eta justidikazio-bideak ematen dituzten agirien azterketa burutuz gauzatuko da, era honetan, beroien kalitatea, egokitasuna,

gasto para tres o más ejercicios presupuestarios consecutivos.

6.– Los expedientes de gastos cuyo importe unitario por tipo de gasto sea superior al fijado reglamentariamente.

*Artículo 27.*– Expedientes no sujetos a fiscalización previa

Quedan excluidos de fiscalización previa:

1.– Los contratos menores definidos por su cuantía en la normativa sustantiva en materia de contratación.

2.– Los contratos de personal y cuantas incidencias pudieran producirse durante la vigencia de los mismos.

3.– Los contratos de tracto sucesivo y carácter periódico, una vez fiscalizado, en su caso, el acto o período inicial de que deriven o sus modificaciones.

4.– Las subvenciones nominativamente asignadas en los Presupuestos Generales de la Comunidad Autónoma de Euskadi. A los efectos del presente Decreto se entenderá que una subvención está nominativamente asignada cuando el beneficiario venga determinado de modo singular, individualizado y de modo indudable en cualquiera de los créditos presupuestarios que componen el estado de gastos del Presupuesto de la Administración General de la Comunidad Autónoma de Euskadi y de sus Organismos Autónomos.

*Artículo 28.*– Informe de fiscalización previa

1.– Tanto si se trata de propuestas de gasto o de ingreso como si se trata de expedientes de otra naturaleza, el examen a que se refiere el artículo 25, y consiguientemente el informe de fiscalización, ha de ser el último de los que se hayan de producir necesariamente en el expediente, de forma que, con posterioridad a la fiscalización previa, sea necesario únicamente someter la propuesta a conocimiento y, en su caso, firma de quien la ha de aprobar.

2.– En los documentos o expedientes sujetos a fiscalización previa el informe de fiscalización se emitirá en el plazo de 15 días a contar desde la recepción en la Oficina de Control Económico del expediente de que se trate con su documentación completa.

3.– Cuando se trate de expedientes o documentos con repercusión presupuestaria, en tesorería y/o contabilidad, deberán acompañarse los documentos contables que resulten oportunos de conformidad a la normativa aplicable.

4.– Los informes favorables se materializarán mediante la firma del interventor en los documentos citados en el párrafo anterior. No obstante, el interventor podrá, cuando lo estime conveniente, efectuar un informe tan extenso como crea oportuno.

*Artículo 29.*– Verificación física

1.– La verificación física de obras, suministros, asistencias, trabajos específicos y concretos de carácter no habitual y servicios se llevará a cabo mediante la comprobación material de los mismos y mediante el examen de la documentación justificativa correspondiente,

erabilpena eta eska daitezkeen beste alde batzuren errealitatea ziurtatu ahal izateko.

2.– Ordaindutako diru-zenbatekoak horretarako izendapena zuteneko egitekoetan inbertitu direla ziurtatzea izango da aurreko lerroaldian aipatu eta justifikaziobideak emango dituzten agirien azterketaren xedea.

*30. atala.*– Ziurtapen fisikoari atxikita dauden espedienteak.

Honako hauen ziurtapen fisikoa egitea agindupekoa izango da:

a) 300.000.000 PTAtik gorako zenbatekoa hartzen duten obrak.

b) Horniduren guztirako zenbatekoa edo, hala behar izan dadinean, lotekako zenbateko partziala 100.000.000 PTAtik gorakoa denean. Homologatu gabekoak izan behar dute hornidura horiek.

c) 50.000.000 PTAtik gorako zenbatekoak dituzten sorospenak eta ohikoak ez diren lan berezi eta zehatzak, horien xedea, txostenak, proiektuak eta ikerketa zehatzak entregatzea izan dadinean.

*31. atala.*– Fiskalizazio txostena, ziurtapen fisikoetan.

1.– Obrak eskuratzea egingo deneko leku, egun eta orduaren berri eman beharko dio organo kudeatzaileak Ekonomi Kontrolerako Bulegoari, gutxienez 15 egun lehenago. Eskuraketa ekintza horietan parte hartu behar duen kontuhartzailea bulego horrek izendatuko du. Aplikagarriak diren arauetan finkatutako eran burutu beharko da ziurtapena eta, fiskalizazio-txostena, emaitza kreditatzeko egingo den aktan utzi beharko da erasota.

2.– Obren, horniduren, sorospenen, ohikoak ez diren lan berezi eta zehatzen eta zerbitzuen ziurtapen fisikoa, beroiek entraga daitezen unean egin beharko da. Horretarako, organo kudeatzaileak, ziurtapen-ekintza hori burutuko deneko egun, ordu eta lekuaren berri eman beharko dio Ekonomi Kontrolerako Bulegoari, bost egun lehenago gutxienez.

3.– Ziurtapen materiala egiteko, ezagutza teknikoak izatea beharrezkoa izan dadinean, Ekonomi Kontrolerako Bulegoko zuzendariak, erosketa, obra edo zerbitzua dagokion espezialitatean ezagutzak dituen funtzionario bat izendatzeko eskabidea egin ahal izango du kontuhartzaileari lagundu diezaion, ekainaren 30eko 14/1994 Legeko 4.3. atalean xedatzen denaren arabera. Eman den laguntza idatziz erasota utziko da espedientean.

*32. atala.*– Ordainketa mailako eginbeharren onarpena justifikatuko duten agirien egiaztapena.

Ordainketa mailako eginbeharren onarpena justifikatuko duten agirien egiaztapena, honako honetan datza: kreditudunak prestazioa egin duela eta/edo zenbatekoa eskuratzeko eskubidea kreditatuko dituzten agiriak aztertzean. Kontratu, akordio edo xedapenetan zuen jatorria, dirua eskuratzeko eskubide horrek eta horiek kontutan hartuta eman zen baimena eta egin zen gastuarekiko konpromezua.

a fin de comprobar la realidad de su calidad, corrección, uso y demás extremos exigibles.

2.– El examen de la documentación justificativa a que se ha hecho referencia en el párrafo anterior tendrá por objeto la comprobación de que las cantidades pagadas se han invertido en la finalidad para la cual estaban destinadas.

*Artículo 30.*– Expedientes sujetos a verificación física

Será preceptiva la verificación física de:

a) Las obras cuyo importe sea superior a 300.000.000 PTA.

b) Los suministros cuyo importe total o, en su caso, parcial por lotes sea superior a 100.000.000 PTA y que no hayan sido objeto de homologación.

c) Las asistencias, trabajos específicos y concretos de carácter no habitual o servicios de importes superiores a 50.000.000 PTA, cuando su objeto consista en la entrega final de informes, proyectos y estudios concretos.

*Artículo 31.*– Informe de fiscalización en las verificaciones físicas

1.– El órgano gestor notificará a la Oficina de Control Económico con una antelación no inferior a 15 días, el lugar, día y hora en que hayan de verificarse las recepciones de obras, debiendo dicha oficina designar al interventor que deba concurrir a las mismas. La verificación se llevará a cabo en la forma determinada por las normas que le sean aplicables y el informe de fiscalización se hará constar en el acta que se levante para acreditar el resultado.

2.– La verificación física de los suministros, asistencias, trabajos específicos y concretos de carácter no habitual y servicios se realizará en el momento de la entrega de los mismos, a cuyos efectos el órgano gestor procederá a notificar a la Oficina de Control Económico con una antelación mínima de cinco días el día, hora y lugar en que haya de realizarse.

3.– Cuando para la comprobación material sea necesaria la posesión de conocimientos técnicos, el Director de la Oficina de Control Económico podrá solicitar la designación de un funcionario con los conocimientos necesarios en la especialidad a la que corresponda la adquisición, obra o servicio para que asista técnicamente al interventor, en los términos del artículo 4.3 de la Ley 14/1994, de 30 de junio. De la asistencia prestada quedará constancia escrita en el expediente.

*Artículo 32.*– Comprobación de la documentación justificativa del reconocimiento de las obligaciones de pago

La comprobación de la documentación justificativa del reconocimiento de las obligaciones de pago consistirá en el examen de la documentación acreditativa de la realización de la prestación por parte del acreedor y/o de su derecho a la percepción del importe en concordancia con los contratos, acuerdos o disposiciones en base a los cuales se autorizó y comprometió el gasto.

*33. atala.*– Fiskalizazio txostena, ordainketa mailako eginbeharren onarpena justifikatuko duten agirien egiaztapenean.

1.– Ordainketa mailako eginbeharren onarpena justifikatuko duten agirien egiaztaperako, Ekonomi Kontrolerako Bulegora bidali daitezen espedienteak, bidezkoa izan dadin egiri kontagarriarekin eta zenbateko exaktoa kreditudunaren legezkotasuna kreditatuko duten jatorrizko agiriekin batera aurkeztu beharko dira. Eta hori, egintza, kontratu edo ordainketa eginbeharrek jatorria hartzen duten eragiketa ekonomikoaren eta prestazioaren egokitasunari buruz organo kudeatzaileak emandako adostasun espresuaren arabera egin beharko da.

Ordainketa-betebeharrak langileei dagozkienetan onartzea justifika dezaten egiriek, ordainketen bidezkotasuna kreditatuko duen eta langileen gastuen kudeaketan eta nominen zerrendei dagokienetan agintea duen organuak emandako ziurtagiria hartuko dute beren baitan.

2.– Aurreko lerroaldian aipatu denaren ondorioetarako, Ekonomi Kontrolerako Bulegoak, ekonomi edukina duen egintzaren fotokopiatutako eta behar den bezala formalizatutako kopia bat bidaltzeko eskatu ahal izango du. Egintza, kontratu mailakoa edo beste izakera batekoa izan daiteke. Batabestearen ondorengo ordainketak beren baitan daramatzaten espedienteak izan daitezenean, lehen aipatu den eskabide hori, onartu beharreko ordainketa-betebeharretatik lehenengoarekin batera egingo da batik bat.

3.– Aurreko atalean aipatu den azterketaren kaltetan gabe, kontuhartzaileak, ordainketa-obligazioa onartze proposamena, aurre fiskalizazioari atxikita dagoen gastu-espedientean jatorria duen ala ez ziurtatuko du eta, fiskalizazioari atxikitakoa izanez gero, zegokion une prozesalaren barruan fiskalizatu zen ala ez. Ziurtapen hau egin izanaren ondorioz, ekainaren 30eko 14/1994 Legeko 24. ataleko 4. lerroaldian jasotzen diren kasuetakoren batetan sartuta dagoela ikustea jazoz gero, onartutako obligazioaren ordainketa geldiarazi egingo da. Ekonomi Kontrolerako Bulegoak, bere garai prozesal egokiaren barruan legokiokeen txosten fiskalizatzailea emango du eta, hau aldekoa baldin bada, espedientearekin aurrera jarraitu ahal izango da. Horrela ezean, onartutako obligazioaren ordainketa geldi egongo da, Jaurlaritzaren Kontseiluak behin-betiko ebazpena eman diezaion arte. Hori betetzeko, Ekonomi Kontrolerako Bulegoak, administrazio-espedientea bidaliko dio Kontseiluari kontrako txostenarekin batera.

4.– Kontaduritza agirien kontuhartzailearen sinaduraz gauzatuko dira aldezko txostenak. Hala ere, kontuhartzaileak, hala baderizkio, berak nahi hainbateko hedadura duen txostena gertatu ahal izango du.

*34. atala.*– Ordainketen aurre kontrola.

1.– Ordainketen aurre kontrolak, zenbatekoaren zehaztasuna eta ordainketa-aginduaren kreditudun pertsonaren zahaztasunak ziurtatzea hartuko du, onartutako obligazioari dagokionetan, konpentsazioa, uztea, epailarien ebazpena edo beste edozein zio dela medio, zenbatekoa edo hartzailea aldatzea gerta dadin kasuetan

*Artículo 33.*– Informe de fiscalización en la comprobación de la documentación justificativa del reconocimiento de las obligaciones de pago

1.– Los expedientes que se remitan a la Oficina de Control Económico para la comprobación de la documentación justificativa del reconocimiento de las obligaciones de pago deberán venir acompañados en todo caso del documento contable que proceda y de los documentos originales que acrediten el importe exacto y la legitimidad del acreedor, de conformidad todo ello con el acto, contrato u operación económica de la que se derive la obligación de pago, así como de la conformidad expresa por el órgano gestor de la idoneidad de la prestación.

La documentación justificativa del reconocimiento de las obligaciones de pago en materia de personal consistirá en la certificación expedida por el órgano competente en la gestión de los gastos de personal acreditativa de la procedencia del pago, y en los correspondientes listados de nómina.

2.– A los efectos del párrafo anterior, la Oficina de Control Económico podrá requerir la remisión de una copia cotejada del acto de contenido económico ya sea de naturaleza contractual o de otra naturaleza, debidamente formalizado. Cuando se trate de expedientes que conlleven pagos sucesivos, el requerimiento anterior se realizará preferentemente junto con la primera de las obligaciones de pago a reconocer.

3.– Sin perjuicio del examen señalado en el artículo anterior, el interventor comprobará si la propuesta de reconocimiento de la obligación de pago procede de un expediente de gasto sometido a fiscalización previa y, en ese caso, si fue fiscalizado en el momento procesal oportuno. Si a consecuencia de esta comprobación se estuviera ante alguno de los supuestos previstos en el párrafo 4 del artículo 24 de la Ley 14/1994, de 30 de junio, se paralizará el pago de la obligación reconocida. La Oficina de Control Económico emitirá el informe fiscalizador que en el momento procesal oportuno hubiera correspondido, y si éste es favorable podrá continuarse el expediente. En caso contrario, se mantendrá la paralización del pago de la obligación reconocida hasta que resuelva el Consejo de Gobierno con carácter definitivo, para lo cual se remitirá por la Oficina de Control Económico a éste el expediente administrativo acompañado del informe desfavorable.

4.– Los informes favorables se materializarán mediante la firma del interventor de los documentos contables. No obstante, el interventor podrá, cuando lo estime conveniente, efectuar un informe tan extenso como crea oportuno.

*Artículo 34.*– Control previo de los pagos

1.– El control previo de los pagos se limitará a comprobar la exactitud del importe y de la persona del acreedor del mandamiento de pago en relación con la obligación reconocida, salvo que aquella cantidad o el destinatario sean modificados por razón de compensación, cesión, decisión judicial o cualquier otro motivo,

izan ezik. Kasu honetan, inguruabar hori ere fiskalizatu egin beharko da.

2.– Transferentzi proposamena edo dagokion ordainketa-agiria sinatuz gauzatuko da fiskalizazioa, diruzaintzan behar hainbateko saldoa badagoela ziurtatu eta saldo hori fondoen erabilgarritasunari buruz Jaurlaritzak finkatu dezan planari egokitu ondoren. Eta hori, Euskal Autonomi Elkartearen Aurrekontu-araubideei buruz indarrean dauden xedapenei buruzko Bateratutako Testuko 115. atalean xedatzen denaren arabera.

*35. atala.*– Akordio bereziak.

1.– Ekainaren 30eko 14/1994 Legeko 22.3. atalean xedatzen denaren ondorioetarako, aurrekontu-programa berezi jakin batzuren kontrol ekonomiko-fiskalari buruzko akordioak, Jaurlaritzak finkatuko ditu, Ogasun eta Herri Administrazio sailburuaren proposamenak entzun, honen edo sailetako sailburuen zuzendarien eta erakunde autonomoetako lehendakarien ininiziabak aztertu ondoren. Akordioa hartu izana justifikatuko duten arrazoiak jaso beharko dira ekimen horretan.

2.– Eraginpeko espedienteen kontrol ekonomiko-fiskalaren harmena eta hedadura finkatu beharko da ekordio horretan, kontrolari atxikita dauden espedienteek izan dezaketen ekonomi-fiskal mailako kontrolari buruzko araubide berdinean sartuta gelditzen direla.

*36. atala.*– Itunepeko kontrol ekonomiko-fiskalak.

1.– Itunepeko kontrol ekonomiko-fiskalek, aurre fiskalizazioari eta ziurtapen fisikoari atxikita ez dauden egintza, gertakari eta eragiketa ekonomikoak hartuko dituzte beren baitan, ekainaren 30eko 14/1994 Legeko 22.4. atalean xedatzen direnen ondorioetarako.

2.– Organo kudeatzailearen eta Ekonomi Kontrolerako Bulegoko arduradunaren artean hartutako akordio-bidez formalizatuko da itunepeko kontrol ekonomiko-fiskala eta honako hauek jasoko dira bertan: egintza, gertakari eta eragiketa ekonomikoei buruzko zehaztasunak eta kontrol ekonomiko-fiskalaren harmena eta hedadura.

3.– Itunepeko kontrol ekonomiko-fiskalak egoteak, beroietan sartzen diren espedienteei kontrol ekonomiko-fiskalaren araubidea aplikatzea ekarriko du, aurreko lerroaldian aipatu den akordioa izenpetu dadin unetik bertatik hasita.

*37. atala.*– Kontrol ekonomiko-fiskalari buruzko urteko txostena.

1.– Ekainaren 30eko 14/1994 Legeko 23.2. atalean aipatu eta xedapenak betetze-graduari buruzko urteko txostena, Ekonomi Kontrolerako Bulegoak gertatu eta Ogasun eta Herri Administrazio sailburuak onarpena emango dion urteko plan baten arabera gauzatuko da. Planak hartuko duen eragin-eremua jaso beharko da plan horretan, kontrol ekonomiko-fiskala haren gain aplikatu ez deneko gainontzeko jardun ekonomikoa osatzen duten egintza, gertakari eta eragiketa ekonomiko guztiak edo batzuk bakarrik jaso ahal izango dituela

en cuyo caso deberá fiscalizarse también tal circunstancia.

2.– La fiscalización se materializará mediante la firma de la propuesta de transferencia o documento de pago correspondiente, previa comprobación de la existencia de saldo suficiente en la tesorería y de su acomodación al plan de disposición de fondos que, en su caso, establezca el Gobierno, de conformidad al artículo 115 del Texto Refundido de las disposiciones legales vigentes sobre el Régimen Presupuestario de Euskadi.

*Artículo 35.*– Acuerdos específicos

1.– A los efectos previstos en el artículo 22.3 de la Ley 14/1994, de 30 de junio, los acuerdos relativos al control económico-fiscal de determinados programas presupuestarios específicos serán establecidos por el Gobierno a propuesta del Consejero de Hacienda y Administración Pública y a iniciativa de este último o de los Consejeros de los Departamentos y de los Directores y Presidentes de los Organismos Autónomos afectados. La iniciativa deberá contener las razones que justifiquen la adopción del acuerdo.

2.– El citado acuerdo deberá establecer el alcance y extensión del control económico-fiscal de los expedientes afectados, quedando incluidos en el mismo régimen de control económico-fiscal que tuvieran los expedientes sujetos a éste.

*Artículo 36.*– Controles económico-fiscales concertados

1.– A los efectos previstos en el artículo 22.4 de la Ley 14/1994, de 30 de junio, los controles económico-fiscales concertados vendrán referidos a actos, hechos u operaciones económicas no sujetos a fiscalización previa ni a verificación física.

2.– El control económico-fiscal concertado deberá formalizarse mediante un acuerdo suscrito por el órgano gestor y el responsable de la Oficina de Control Económico y habrá de contener, como mínimo, la especificación de los actos, hechos u operaciones económicas a que se refiere así como el alcance y extensión del control económico-fiscal.

3.– La existencia de controles económico-fiscales concertados determinará la aplicación a los expedientes en ellos incluidos del mismo régimen de control económico-fiscal que tuvieran los expedientes sujetos a éste desde el momento de la suscripción del acuerdo mencionado en el párrafo anterior.

*Artículo 37.*– Informe anual de control económico-fiscal

1.– El informe anual sobre el grado de cumplimiento de las disposiciones legales a que se refiere el artículo 23.2 de la Ley 14/1994, de 30 de junio, se sustanciará de conformidad a un plan anual que confeccionará la Oficina de Control Económico y aprobará el Consejero de Hacienda y Administración Pública. Dicho plan deberá contener el ámbito sobre el que se desarrollará pudiendo circunscribirse a todos o a algunos de los actos, hechos u operaciones económicas que componen el resto de la actividad económica sobre la que se no se

plan horrek. Jaurlaritzaren Kontseiluari eman beharko zaio urteko txostenaren eta horren emaitzen berri.

2.– Aurreko 1. lerroaldian esan denaren kaltetan gabe eta Ekonomi Kontrolerako Bulegoak finkatu dezan aldizkotasunaren arabera, Euskal Autonomi Elkarteko Ogasuntza Orokorrean garrantzia izan eta langile edo beste gai batzuri buruzko espedienteen urteko planaren aurrelanak landu ahal izango dira. Kontrol ekonomiko-fiskalaren pean dauden espedienteak izan behar dute horiek.

*38. atala.–* Organo kolegiatuetan egote eta partehartze araubidea.

1.– Ekainaren 30eko 14/1994 Legeko 23.3. atalean xedatzen denaren arabera, organo kolegiatuak sortze edo jardute-arauetan kontuhartzaile batek parte hartu behar duela agintzea gerta dadinean, kontrol ekonomiko-fiskala eramatea izango da honen egitekoa. Ez da izango organo kolegiatu horretako kide, baina hitz egiteko eskubidea izango du.

2.– Kontrol ekonomiko-fiskala behar dutenei buruzko txostena edo txostenak, akordio horiek hartu direla jaso dadineko aktan utzi beharko dira erasota. Ez da horrela jokatu beharrik izango suspensio-indarra baldin badute akordio horiek; kasu honetan, ekainaren 30eko 14/1994 Legeko 24.2. atalean finkatzen den izapideari jarraitu beharko zaio.

3.– Kontrol ekonomiko-fiskala, dagokion organoaren barruan eta erabakia hartzen deneko unean gauzatu behar da. Hala ere, kontuhartzailearen iritzitan agiriak edo gehigarrizko informazioa bilatzea beharrezkoa izan dadinean edo, salbuespen gisa, espedientearen konplexutasunak eta espediente horrek Euskal Autonomi Elkartearen Ogasuntza Orokorrean duen eraginak hala eskatzea gerta dadinean, txostena gertatzeko aldia areagotu ahal izango da eta, ondorioz, akordioa hartzeko prozesua, gehienera, hamabost eguneko epealdiz etenarazi ahal izango da.

*39. atala.–* Fiskalizazio moduak.

1.– Kontrol ekonomiko-fiskala, erabatekoa izango da oro har. Hala ere, laginketarako teknikariek burutu ahal izango dute. Hori horrela bada, atal honetan aipatzen direnak eta, hala gerta dadinean, Ekonomi Kontrolerako Bulegoak eman ditzan argibideak bete beharko dira.

2.– Honako baldintza hauek bete ditzaten egintzak, gertakariak edo eragiketa ekonomikoak izan daitezke laginketaren gai:

a) Antzeko xedapenei lotuta egotea.

b) Horren kudeaketaren ardura duen administrazio-organo berean jatorria izatea. Zuzendaritza edo baliokidekoak diren organoen mailan finkatuko dira kudeaketa-organo horiek, administrazio-izapide arloko eskuduntzei dagokienetan.

c) Ekonomi Kontrolerako Bulegoan denboraldi jakin baten barruan jasotzea. Ekonomi Kontrolerako Bulegoak finkatuko du espedienteak eskuratzeko denboraldi hori.

ha ejercido el control económico fiscal. Del informe anual y de los resultados del mismo se dará cuenta al Consejo de Gobierno.

2.– Sin perjuicio de lo establecido en el párrafo 1 anterior y con la periodicidad que se determine por la Oficina de Control Económico, se podrán realizar avances del informe anual de los expedientes relativos a personal u otros con transcendencia para la Hacienda General del País Vasco sobre los que no se haya ejercido control económico-fiscal.

*Artículo 38.–* Régimen de presencia y participación en órganos colegiados

1.– Cuando, de conformidad al artículo 23.3 de la Ley 14/1994, de 30 de junio, las normas de creación o de funcionamiento de órganos colegiados prevean la participación en los mismos de un interventor, la presencia de éste deberá limitarse al ejercicio del control económico-fiscal no teniendo la condición de miembro del órgano colegiado, sin perjuicio de su intervención en los debates.

2.– El informe o informes de control económico-fiscal de los acuerdos que lo precisen se harán constar en el acta correspondiente en que figure la adopción de aquéllos, salvo que tuviesen efectos suspensivos en cuyo caso se seguirá el trámite previsto en el artículo 24.2 de la Ley 14/1994, de 30 de junio.

3.– El ejercicio del control económico-fiscal deberá realizarse en el órgano y en el momento decisorio resultante. Sin embargo, cuando a juicio del interventor sea necesario recabar documentos u obtener información adicional o, excepcionalmente, la complejidad y la relevancia del expediente en los derechos y obligaciones de la Hacienda General del País Vasco así lo aconseje, se podrá ampliar el plazo de emisión del informe y, por consiguiente, interrumpir el proceso de adopción del acuerdo correspondiente durante un período máximo de quince días.

*Artículo 39.–* Modos de fiscalización

1.– El control económico-fiscal se llevará a cabo, con carácter general, de forma exhaustiva. No obstante, podrá ser ejercido por técnicas de muestreo, debiendo sujetarse a lo dispuesto en el presente artículo y a las instrucciones que, en su caso, establezca la Oficina de Control Económico con carácter previo a dicho ejercicio.

2.– Podrán ser objeto de muestreo los actos, hechos u operaciones económicas que cumplan con los siguientes requisitos:

a) Estar sujetos a una normativa legal análoga.

b) Proceder de un mismo órgano administrativo encargado de su gestión. Estos órganos gestores se fijarán a nivel de Dirección u órgano equivalente en cuanto a competencias en materia de tramitación administrativa.

c) Haber sido recibidos en la Oficina de Control Económico en un período de tiempo determinado. El período de tiempo de recepción de expedientes será establecido por la Oficina de Control Económico.

3.– Ekonomi Kontrolerako Bulegoak finkatuko dituzte Sail, Zerbitzu, Zentru edo Erakunde bakoitzean laginketaren gai izan behar duten populazioak eta bai zein laginketa-moeta aplikatu behar den ere. Konfidantza aldea eta errakuntza portzentaia ere finkatu egingo dira laginketaren gai izango den populazio bakoitzarentzako.

4.– Lagina osatzen duten egintzen, agirien eta espedienteen aukeraketa, itsu-mutsuan egingo da, laginketaren gai izango diren egintza, agiri edo populazioei buruzko espedienteak antolatu ondoren. Horretarako, Ekonomi Kontrolerako Bulegoko sarrera-erregistroan edo kudeaketa-organuan jatorri duten espedienteen zerrendetan finkatutako antolaera hartuko litzateke oinarritzat.

5.– Laginketaren gai den populazio bat identifikatzeko eta aukeratutako espedienteak erasota uzteko behar diren argibideak emango ditu Ekonomi Kontrolerako Bulegoak eta bai, aukeratuak izan ez arren ere, populazio hori osatzen duten gainontzekoari buruzkoak ere.

6.– Fiskalizazio txostenek, izakera eta ondorio berdinak izango dituzte aukeratuak izan diren espedienteei dagokienetan eta, suspensio mailako ondorioak dituzten eta ezaldezkoak diren fiskalizazio-txostenak finkatuta dagoen errakuntza-portzentaia gainditzea gerta dadinean, populazioa osatzen duten elementu guztiak itzuliko dira organo kudeatzaileak aztertu ditzan.

7.– Ekonomi Kontrolerako Bulegoak, egokitzat jotzen baldin badu, laginketaren gai den populazioari buruzko egintza, agiri edo espedienteen erabateko eta banan-banako azterketa egin ahal izango du, aukeratu den laginean sartuta ez egotea gertatu dadinean ere.

*40. atala.–* Fiskalizazio txostenen izakera eta ondorioak.

1.– Fiskalizazio txostenak, aldezkoak edo ezaldezkoak izan daitezke eta, azken kasuan, arrazoiak eman beharko dira.

2.– Ezaldezko fiskalizazio-txostenek, suspensio eta ez-suspensio indarra izan dezakete. Ekainaren 30eko 14/1994 Legeko 24.1. ataleko a)tik e)ra arteko idazatietan hartu beharko dute oinarri lehenengoek.

3.– Suspensio indarra duten fiskalizazio txostenetan idatziz jaso beharko da inguruabar hau. Eta horiek kontutan hartuta, egintza sortzeko edo, Jaurlaritzaren Kontseiluaren eskuduntzapekoa bada, proposamena egiteko agintea duen organoak, somatutako akatsak zuzendu ahal izango ditu edo, hala behar izanez gero, ezadostasuna Jaurlaritzaren Kontseilura bidali, honek behin-betiko ebazpena eman diezaion. Fiskalizazio txostena sail kudeatzailean jaso dadin egunetik hasi eta 15 eguneko epearen barruan eragin beharko zaizkio izapideak bidalketa horri, espedientearen berri Ekonomi Kontrolerako Bulegoari eman beharko zaiola. Honek, beronek finkatu dezan eran, beharrezkoak diren agiriak gertatu ditzan, Jaurlaritzaren Kontseiluak ezadostasunebazpena eman ahal izateko.

4.– Ezaldezkoak izan eta suspensio-indarra duten fiskalizazio txostenetan, Dekretu honetako 24. atalean

3.– La Oficina de Control Económico determinará para cada Departamento, Servicio, Centro u Organismo las poblaciones concretas a muestrear y el tipo de muestreo aplicable. El intervalo de confianza y el porcentaje de error admitido serán fijados para cada población objeto de muestreo.

4.– La selección de los actos, documentos o expedientes integrantes de la muestra se realizará al azar previa la oportuna ordenación de los actos, documentos o expedientes de las poblaciones objeto de muestreo, a cuyo efecto se tomará como base la establecida por el registro de entrada de la Oficina de Control Económico o la deducida de las relaciones de expedientes provenientes del órgano gestor.

5.– La Oficina de Control Económico dictará las oportunas instrucciones tendentes a la identificación y constancia de los expedientes seleccionados dentro de una población objeto de muestreo, así como de aquellos otros que, no habiendo sido seleccionados, forman parte de la misma población.

6.– Los informes de fiscalización tendrán el mismo carácter y efectos respecto a los expedientes seleccionados y en el caso de que los informes de fiscalización desfavorables con efectos suspensivos superen el porcentaje de error prefijado, se devolverá la totalidad de los elementos integrantes de la población para su revisión por el órgano gestor.

7.– La Oficina de Control Económico podrá realizar, cuando lo estime conveniente, un examen exhaustivo e individualizado de los actos, documentos o expedientes pertenecientes a una población objeto de muestreo aún cuando no hayan resultado incluidos en la muestra seleccionada.

*Artículo 40.–* Carácter y efectos de los informes de fiscalización

1.– Los informes de fiscalización podrán ser favorables o desfavorables, debiendo motivarse sólo en este último caso.

2.– Los informes de fiscalización desfavorables podrán ser, a su vez, suspensivos y no suspensivos, debiendo aquellos traer causa en los apartados a) a e) del artículo 24.1 de la Ley 14/1994, de 30 de junio.

3.– Los informes de fiscalización suspensivos deberán reflejar esta circunstancia por escrito y, a la vista de los mismos, el órgano competente para producir o generar el acto de que se trate o para proponerlo cuando sea competencia del Consejo de Gobierno podrá subsanar los defectos detectados o, en su caso, elevar la discrepancia al Consejo de Gobierno para que éste resuelva definitivamente. La elevación citada deberá tramitarse en el plazo de 15 días desde la recepción en el Departamento gestor del informe de fiscalización, dando traslado del expediente a la Oficina de Control Económico para que, en la forma en que se establezca por ésta, se proceda a la preparación de la documentación necesaria para que el Consejo de Gobierno resuelva la discrepancia correspondiente.

4.– Los informes de fiscalización de carácter desfavorable y con efectos no suspensivos deberán especificar

aipatzen diren xedapenetatik, zein xedapen aplikagarri hautsi den zehaztu beharko da eta horrek, kontuhartzailearen iritzitan, egintzen nulitatea ekar dezakeen edo ez ere bai. Era berean, prozedurari dagokionetan ezinbestekotzat jotzen diren izapideren batzuk kendu diren edo ez ere zehaztu beharko da txosten horietan.

5.– Ezaldezkoak izan eta suspensio-indarrik ez duten fiskalizazio txostenek ez dute emango atal honetako 3. lerroaldian aipatu den ezadostasun-prozeduraz baliatzeko biderik eta, ondorioz, agintedun organoak egintzei jarraitu ahal izango die. Hala ere, Ekonomi Kontrolerako Bulegoak, aurreko 4. idazatian aipatzen diren espedienteei berri emango dio Ogasun eta Herri Administrazio sailburuari.

3. SEKZIOA
KONTROL EKONOMIKOA ETA ARAUBIDEZKOA

*41. atala.–* Xedapenak.

1.– Dekretu honetan xedatzen direnen ondorioetarako, honako hauek hartuko dira ekonomi edukindun xedapentzat: Euskal Autonomi Elkarteko Ogasuntza Orokorra Arautzen duten pripintzipioei buruz indarrean dauden xedapenen Bateratutako Testuko 1.2. atalean, Euskal Autonomi Elkarteko Ogasuntza Orokorraren gai propioen gain, zuzen edo zeharka, eragina duten xedapenak. Aurrekontu araubidearen gain eta Euskal Autonomi Elkarteko aurrekontu-araubidea arautzen duen arauterian jasotzen diren gastu eta diru-sarrera publikoen gain eragina duten xedapenak ere horretan sartzen dira.

2.– Aurreko lerroaldian xedatzen denaren kaltetan gabe eta Ekonomi Kontrolerako Bulegoak edukin ekonomikoa ematen den ala ez baloratu ahal izateko, sailek eta erakundeek, xedapen- proiektu guztiak bidali beharko dituzte bulego horretara dekretu honetan arautzen den prozeduraren arabera.

*42. atala.–* Memoria eta agiri orokorrak.

1.– Oro har aplikagarriak diren arauen indarrez, prozedurak kontutan hartuta agian eskatu daitezkeen beste baldintza edo izapide batzuren kaltetan gabe, kontrol ekonomiko eta araubidezkoari atxikita dauden xedapen guztiekin batera, memoria bat aurkeztu beharko da oinarrizko dokumentu gisa. Gutxienez honako hauek jaso beharko dira bertan:

a) Hori indarrean jartzeak ekarri ditzan aurrekontugastu eta diru-sarreren kuantifikazioa, ohikoak direnak eta kapital-eragiketetatik datozenak bereiztu egin beharko direla eta gastu edo diru-sarrera horien destinoa identifikatu egin beharko dela.

b) Aurrekontu gastuen finantzaketa, eraginpean dauden errekurtsoak eta Euskal Autonomi Elkarteko aurrekontu orokorrez aparte ematen diren finantzaketaiturriak aipatuz.

c) Euskal Autonomi Elkarteko Ogasuntza orokorraren gaietan eta aurrekontu-araubidean eragina duen xedapeneko aldeak identifikatzea, xedapenaren aurrekariak deskribatzea eta horren beharrak justifikatzea.

las disposiciones aplicables contravenidas de entre las señaladas en el artículo 24 del presente Decreto, así como la circunstancia de si ello, a juicio del interventor, puede dar lugar a nulidad de las actuaciones . Del mismo modo, deberá especificar si se han omitido trámites que se consideran esenciales en el procedimiento de que se trate.

5.– Los informes de fiscalización de carácter desfavorable y con efectos no suspensivos no darán lugar al procedimiento de discrepancias aludido en el párrafo 3 de este artículo pudiendo, en consecuencia, el órgano competente proseguir con las actuaciones. No obstante, la Oficina de Control Económico dará cuenta al Consejero de Hacienda y Administración Pública de aquellos expedientes a que se refiere el apartado 4, anterior.

SECCIÓN 3.ª
EL CONTROL ECONÓMICO-NORMATIVO

*Artículo 41.–* Disposiciones normativas

1.– A los efectos del presente Decreto se entenderán como disposiciones normativas con contenido económico aquellas que incidan, repercutan o afecten directa o indirectamente, en las materias propias de la Hacienda General del País Vasco definidas en el artículo 1.2 del Texto Refundido de las disposiciones legales vigentes sobre los Principios Ordenadores de la Hacienda General del País Vasco, así como en el régimen presupuestario y de ejecución del gasto e ingreso público recogidos en la normativa reguladora del régimen presupuestario de Euskadi.

2.– Sin perjuicio de lo establecido en el párrafo anterior, a fin de que por la Oficina de Control Económico se proceda a la valoración de la existencia o ausencia de contenido económico, los Departamentos y Organismos remitirán a dicha Oficina todos los proyectos de disposiciones normativas, de conformidad con el procedimiento regulado en el presente Decreto.

*Artículo 42.–* Memoria y documentación general

1.– Con independencia de otros requisitos o trámites que procedimentalmente puedan resultar exigibles en virtud de la normativa de general aplicación, todas las disposiciones sujetas a control económico-normativo acompañarán, como documento básico una Memoria que como mínimo deberá contener los siguientes extremos:

a) Cuantificación de los gastos e ingresos presupuestarios que ocasione su entrada en vigor con distinción de los que sean corrientes y de los que sean de operaciones de capital, e identificación del destino de dichos gastos o ingresos.

b) Financiación de los gastos presupuestarios con indicación de los recursos que se vean afectados y fuentes de financiación al margen de los Presupuestos Generales de la Comunidad Autónoma de Euskadi.

c) Identificación de aquellos aspectos de la disposición que incidan o repercutan en materias propias de la Hacienda General del País Vasco y de régimen presupuestario, así como descripción de los antecedentes y justificación de la necesidad de la disposición.

d) Proposamenaren gai den xedapena han sartzen deneko aurrekontu-programa ekonomikoaren deskripzioa, arau hori indarrean jartzeak bere baitan hartuko dituen helburuak, egintzak eta indikatzaileak identifikatuz eta hori aplikatzeak ekonomi eta gizarte mailan izango dituen eraginen ebaluazioa eginez.

e) Programak eta lortzea nahi deneko helburuak exekutatze eta betetze graduaren ebaluazioa, dirulaguntzapeko programak garatzeko emandako arauak izan daitezenean. Dirulaguntzen deialdien ebaluazioa ere egin beharko da, deialdi horiek beste ekitaldi batzutan onartutakoen jarraipena izan daitezenean.

2.– Aurrekontuetan, diruzaintza eta/edo kontaduritzan eragina duten espedienteak izan daitezenean, aplikagarriak izan daitezkeen arauetan xedatzen denaren arabera egokitzat jotako kontaduritza-agiriak ere aipatu beharko dira.

3.– Era berean, proposamenaren gai izan den erregulazioari indarra ematen dioten iritzi orokorrak eta juridikoak ezagutzeko bide eman dezaketen datu, txosten eta ikerketa guztiak jaso beharko dira memoria horretan. Txostena emateko bideak erraztuko dituzten beste edozein berri ere bai.

*43. atala*.– Agiriak, ekonomi eta araubidezko kontrolari buruzkoak, ekonomi-antolaera mailako modalitateari dagozkionetan.

1.– Ekonomi eta araubidezko kontrola, ekainaren 30eko 14/1994 Legeko 26. ataleko 2. lerroaldian aipatzen dena bezalakoa izan dadinean, aplikagarriak izan daitezkeen atal horretako 1. idazatian aipatzen diren idazatietan jasotzen direnak hartu beharko ditu kontrol horrek eta horiei buruzko iritzia eman ere bai. Honako hauek ere jaso beharko dira, hau da, proposamenaren gai izan den antolaketaren arrazionalitatea, zerbitzuen koste, errendimendu eta emankortasunaren gain kontrolak izango dituen ondorioak eta eragina.

2.– Ondorio horietarako, aurreko atalean aipatu diren agiriez gain, honako hauek ere bidali beharko dira:

a) Izaikia edo organoa sortze edo, hala behar bada, aldatze eta birregituratze beharra edo horren egokitasuna justifikatzea, era honetan, burutu behar diren edo horietan sartuko deneko programa ekonomiko eta aurrekontu mailakoak bete ahal izateko.

b) Erabili beharko diren giza-baliabideen prebisioa, horien soldata, kostu eta eraginpean geldituko diren medio materialen deskripzioa. Ohiko gastua edo kapital mailakoa ekar dezaketen medioen arteko bereizketa egin beharko da.

c) Jarduketaren kostuari eta zerbitzuen errendimendu edo utiltasunari buruzko ikerketa ekonomikoa. Hala behar izan dadinean, lau urterako Plan Ekonomikoa ere bai.

3.– Xedapenaren helburua, sozietate, elkarte edo entitateren bat sortzea edo horietakoren batetan parte hartzea izan dadinean, dadina dadila horien izakera juridikoa, honako hauek jasoko dituen justifikaziomemoria bidali beharko da: entitate berriaren jarduna garatuko deneko inguru ekonomikaori buruzko informazio orokorra eta Euskal Autonomi Elkarteko Admi-

d) Descripción del programa económico presupuestario en el que se inserta la disposición propuesta, con identificación de los objetivos, acciones e indicadores afectados por la entrada en vigor de la norma y evaluación económica y social de su aplicación.

e) Evaluación del grado de ejecución y cumplimiento de los programas y de los objetivos perseguidos cuando se trate de una regulación dictada en desarrollo de los programas subvencionales, así como sobre las convocatorias de las subvenciones y estas supongan una continuidad de las aprobadas en ejercicios anteriores.

2.– Cuando se trate de expedientes con repercusión presupuestaria, en tesorería y/o contabilidad, deberán acompañarse los documentos contables que resulten oportunos de conformidad con la normativa aplicable.

3.– Asimismo, se remitirán todos aquellos datos, informes, estudios que permitan conocer las líneas generales y los presupuestos jurídicos habilitantes de la regulación propuesta, y cuantos otros faciliten la emisión del informe.

*Artículo 43*.– Documentación a efectos del control económico-normativo en su modalidad económico-organizativa

1.– Cuando el control económico-normativo se manifieste en relación al párrafo 2 del artículo 26 de la Ley 14/1994 de 30 de junio deberá abarcar y pronunciarse, además de sobre los apartados citados en el apartado 1 de dicho artículo que puedan ser de aplicación, sobre la racionalidad de la organización propuesta, el efecto o incidencia, en su caso, sobre coste, rendimiento y eficacia actuales de los servicios y su previsión futura.

2.– A dichos efectos, además de la documentación exigida por el artículo anterior, deberá remitirse:

a) Justificación de la necesidad o idoneidad de creación del ente u órgano, o en su caso, de su modificación y reestructuración, a efectos del cumplimiento de los programas económico-presupuestarios que vaya a ejecutar, o en los que se integre.

b) Previsión de los recursos humanos utilizados, con descripción de sus retribuciones y costes, así como de los medios materiales afectados con distinción entre los que supongan gasto corriente o de capital.

c) Estudio económico del coste de su funcionamiento y del rendimiento o utilidad de sus servicios, acompañado, en su caso, del correspondiente Plan Económico a cuatro años.

3.– En el caso de que la disposición tuviera como finalidad la creación o participación en sociedades, asociaciones, o demás entidades, cualquiera que fuese su naturaleza jurídica, deberá remitirse además una Memoria justificativa que recoja información general sobre el entorno económico en el que se va a desenvolver la actividad de la nueva entidad y las razones econó-

nistrazio Orokorrak eta Instituzionalak parte hartzea justifika dezaten ekonomi-enpresa, gizarte-kultura edo estrategi-politika mailako arrazoiak alegia. Entitate hori sortzeaz edo horretan parte hartzeaz lortzea nahi deneko eta ertain mailako denboraldiaren barruan kuantifikagarriak diren helburuak definitu beharko dira. Horiek betetzeko bideak eskainiko dituzten indikatzaileak ere finkatu beharko dira, nahiz objetiboak, nahiz subjetiboak.

Honako informazio hauek ere emango dira: entitatearen helburuak, Eusko Jaurlaritzaren partaidetza-portzentaia, beste partehartzaile batzuri buruzko zehaztasunak eta horien partaidetza-portzentaia, inbertsio proiektuak, errentabilitatearen analisi ekonomiko eta soziala, proiektuaren azterketa, kapital eta ustiaketa aurrekontuen ikerketa, aurreikusgarriak diren finantzaegoerak, aurrikusita dagoen zordunketa eta proposamena erabat ezagutzeko bide emango duten beste elementu eta agiri batzuk.

*44. atala.–* Ekonomi eta araubidezko kontrolari buruzko txostena emateko prozedura.

1.– Ekonomi eta araubidezko kontrola, arauz ezarrita dagoen kontrolari buruzko txostena emanez gauzatuko da eta kontrolaren gai izango den araua edo xedapena horretarako agintea duen organoak onarpena ematearen pean jarri aurreko eta gertu-gertuko unean erabiliko da. Hori horrela, espedienteak izan ditzakeen kontroletatik azkenengoa izan beharko du eta txostena eman ondoren, nahikoa izango da, proposamenaren berri agintedun organo horri ematea eta organo horrek onartzea.

Lege-aurreproiektuak izan daitezenean, Jaurlaritzaren Kontseiluak aztertu aurreko gertueneko unean gauzatuko da kontrol ekonomiko eta araubidezkoa.

2.– Kontrol ekonomiko eta araubidezkoari buruzko txostenak, xedapen-proiektuaren testua eta, edukinaren arabera, eskatzen diren agiriena eskuratu daitezen egunetik hasi eta 15 eguneko epearen barruan egin beharko dira.

3.– Espedientea eskuratu ondoren, espedientearen alde guztiak jaso direla ziurtatu beharko du Ekonomi Kontrolerako Bulegoak. Hori horrela ez izatea gertatuz gero, beharrezkoak diren agiriak edo datuak eman ditzala eskatuko dio organo bidaltzaileari. Kasu honetan, aurreko lerroaldian finkatu den 15 eguneko epealdi hori, eskatu diren agiriak eskuratu daitezen egunetik hasita kontatuko da.

4.– Ekonomi Kontrolerako Bulegoak bere egitekoak betetzeko beharrezkoak dituen txostenak, aholku teknikoak, aurrekariak edo dokumentuak eskatu ahal izango dizkio egokitzat jotako edozein instantziri, artez edo proposamena egiten duen Sail edo Erakundearen bidez. Espedientearen konplexutasunak edo horrek Euskal Autonomi Elkarteko Ogasuntza Orokorreko eskubide eta eginbeharretan eragina izateak hala eska dezanean, Ekonomi Kontrolerako Bulegoak, gelarazi ahal izango du kontrol ekonomiko eta araubidezkoari buruzko

mico-empresariales, socio-culturales o estratégico-políticas que justifican la participación de la Administración General e Institucional de la Comunidad Autónoma de Euskadi en la misma. Deberán definirse los objetivos, cuantificables a medio plazo, que se persiguen con la creación de esta entidad o la participación en la misma y establecerse los indicadores, tanto objetivos como subjetivos, que permitan medir su cumplimiento.

Se adjuntará asimismo información relativa al objeto social de la nueva entidad, el porcentaje de participación del Gobierno Vasco con las aportaciones previstas, detalle del resto de participantes y porcentaje de su participación, proyectos de inversión, un análisis de la rentabilidad, tanto económica como social, del proyecto y, en su caso, presupuestos de capital y explotación, estados financieros previsionales, endeudamiento previsto y demás elementos y documentación que permitan un cabal conocimiento de la propuesta.

*Artículo 44.–* Procedimiento para la emisión del informe de control económico-normativo

1.– El control económico-normativo se materializará mediante la emisión del correspondiente informe de control preceptivo y se ejercerá en el momento inmediatamente anterior a que se someta la norma o disposición objeto de control a la aprobación del órgano que resulte competente para ello, siendo, por tanto, el último de los que se hayan de producir necesariamente en el expediente, de forma que con posterioridad a su emisión, bastará simplemente someter la propuesta a conocimiento y aprobación del mencionado órgano competente.

Cuando se trate de anteproyectos de ley, el control económico-normativo se ejercerá en el momento inmediatamente anterior a su consideración por el Consejo de Gobierno.

2.– Los informes de control económico-normativo, deberán emitirse en el plazo de 15 días a contar desde la recepción, en la Oficina de Control Económico, del texto del proyecto de disposición normativa acompañado de la documentación requerida en función de su contenido.

3.– Recibido el expediente, la Oficina de Control Económico constatará que el mismo está completo. En el supuesto de que no fuera así requerirá al órgano remitente para que aporte los documentos o datos que sean necesarios, en cuyo caso el plazo de 15 días previsto en el párrafo anterior comenzará a contar desde la recepción de la documentación solicitada.

4.– La Oficina de Control Económico podrá solicitar directamente, o a través del Departamento u Organismo proponente, los informes, asesoramientos técnicos, antecedentes o documentos necesarios para el desempeño de su función a cuantas instancias fuese pertinente. Cuando la complejidad del expediente o la incidencia del mismo en los derechos y obligaciones de la Hacienda General del País Vasco así lo aconsejen, la Oficina de Control Económico podrá interrumpir el plazo de emisión del informe de control económico-normativo. Tal

txostena emateko epealdia. Txostena eskatu duen organoari eman beharko dio inguruabar horren berri.

5.– Finkatuta dagoen epealdiaren barruan txiostena ez ematea jazoz gero, aldezkoa dela joko da eta ekintzei jarraitu ahal izango zaie.

6.– Ekainaren 30eko 14/1994 Legeko 27.4. atalean xedatzen direnen ondorioetarako, kontrol ekonomiko eta araubidezkoari buruzko txostenak, Ogasun eta Herri Administrazio Saileko edozein organok, indarrean dauden xedapenetan agintzen denaren arabera, eman beharreko txosten guztiak bereganatuko ditu. Aurrekontu, aurrekontu-programazio, kontaduritza, ogasun eta finantza, diruzaintza, ondare, kontratazio eta zerga-administrazio mailako gaietan agintedunak izan behar dute organo horiek.

7.– Bestalde, ekainaren 30eko 14/1994 Legeko 27.3. atalean xedatzen denaren arabera, Jaurlaritzaren Lehendakariordetzako Koordinaziorako eta Administrazioa Eraberritzeko Idazkaritza Nagusiari eman beharko zaio ekonomi eta antolaerapean landu diren txostenen berri. Txostenen edukina ezaldezkoa izatea jazo dadinean, Jaurlaritzaren Kontseiluari eman beharko zaio horren berri Ogasun eta Herri Administrazio sailburuaren bidez.

*45. atala.*– Xedapenek edukin ekonomikorik ez izatea.

Aurreko atalean zera xedatu baldin bada ere eta bidali den xedapenak edukin ekonomikorik ez izatea gerta dadinean, 5 egunekoa izango da ziurtagiria bidaltzeko epealdia, espedientea eskuratu dadin egunetik hasita.

*46. atala.*– Kontrol ekonomiko eta araubidezkoei buruzko txostenen izakera eta ondorioak.

1.– Kontrol ekonomiko eta araubidezkoei buruzko txostenak, aldezkoa eta ezaldezkoak izan daitezke.

2.– Kontrol ekonomiko eta araubidezkoari atxikita dauden arau edo xedapenek ezaldezko txostena jaso dezatenean, araua edo xedapena emateko edo, Jaurlaritzaren Kontseiluaren agintepekoa izan dadinean, proposamena egiteko eskuduntza duen organoak, ikusitako akatsak zuzendu edo txostenarekiko azadostasunak aurkeztu ahal izango ditu, txostena aztertu ondoren. Erabakiaren berri Ekonomi Kontrolerako Bulegoari eman beharko dio beti, kontrol-txostena eskuratu dadin egunetik hasi eta 15 eguneko epearen barruan.

3.– Akonomi eta araubidezko kontrolari buruzko txostenen berri Ogasun eta Herri Administrazio sailburuari eman beharko dio Ekonomi Kontrolerako Bulegoak.

4.– Ekonomi Kontrolerako Bulegoaren ezaldezko txostenak, ekainaren 30eko 14/1994 Legeko 26. ataleko lehenengo lerroaldiko a) letran xedatzen denean hartzen baldin badu jatorria edo, Euskal Autonomi Elkarteko Diruzaintzari edo elkarte horren ondareari, arau edo xedapen horrek kalte ekonomikoak ekar diezazkiokeela jotzea jazoz gero, geldiarazi egingo dira espedientearen izapideak, erreparoari irtenbidea eman arte.

Araua edo xedapena emateko edo, Jaurlaritzaren Kontseiluaren agintepekoa izan dadinean, proposamena

circunstancia se notificará al órgano solicitante del citado informe.

5.– De no emitirse el informe en el plazo señalado éste se entenderá favorable y podrán proseguirse las actuaciones.

6.– A los efectos de lo dispuesto en el artículo 27.4 de la Ley 14/1994 de 30 de junio, el informe de control económico-normativo incorporará, en sus propios términos, todos los informes que, en su caso y en virtud de disposiciones legales vigentes, deba emitir cualquier órgano del Departamento de Hacienda y Administración Pública con competencia en las materias de presupuestos, programación presupuestaria, contabilidad, hacienda y finanzas, tesorería, patrimonio, contratación, y administración tributaria.

7.– Por otra parte, de conformidad con el artículo 27.3 de la Ley 14/1994 de 30 de junio, los informes elaborados bajo la modalidad económico-organizativa serán puestos en conocimiento de la Secretaría General de Coordinación y para la Modernización Administrativa de la Vicepresidencia del Gobierno. Cuando el contenido de aquéllos sea desfavorable se pondrá en conocimiento del Consejo de Gobierno a través del Consejero de Hacienda y Administración Pública.

*Artículo 45.*– Ausencia de contenido económico de las disposiciones

No obstante lo dispuesto en el artículo anterior, en el caso de ausencia de contenido económico de la disposición normativa remitida, el plazo de emisión de la certificación será de 5 días, a contar desde la recepción del expediente.

*Artículo 46.*– Carácter y efectos de los informes de control económico-normativo

1.– Los informes de control económico-normativo podrán ser favorables o desfavorables.

2.– En los casos en que las normas o disposiciones sujetas a control económico-normativo sean informadas desfavorablemente, el órgano competente para dictar la norma o disposición correspondiente o para proponerla cuando sea competencia del Consejo de Gobierno podrá, a la vista de dicho informe, subsanar los defectos detectados o formular las discrepancias correspondientes, comunicando la decisión, en todo caso, a la Oficina de Control Económico en el plazo de 15 días desde la recepción del informe de control.

3.– Los informes de control económico-normativo, cuando resulten desfavorables, serán puestos en conocimiento del Consejero de Hacienda y Administración Pública por parte de la Oficina de Control Económico.

4.– En aquellos supuestos en los cuales el informe desfavorable de la Oficina de Control Económico tuviera causa en lo dispuesto en la letra a) del párrafo primero del artículo 26 de la Ley 14/1994, de 30 de junio, o se estime que la norma o disposición pudiera causar quebrantos económicos a la Tesorería General del País Vasco o a su patrimonio, se suspenderá la tramitación del expediente hasta que el reparo sea solventado.

El órgano competente para dictar la norma o disposición correspondiente, o para proponerla cuando sea

egiteko eskuduntza duen organoak, ikusitako akatsak zuzendu edo, azadostasunak indarrean dirauenean, ezadostasun hori Jaurlaritzaren Kontseiluaren aurrean aurkeztu ahal izango du, honek behin-betiko ebazpena eman diezaion. Atal honetako bigarren lerroaldian finkatzen den epearen barruan izapidetu beharko da bidalketa hori eta Ekonomi Kontrolerako Bulegora espediente hori bidali, era honetan, Jaurlaritzaren Kontseiluak ezadostasunari ebazpena emateko beharrezkoak diren agiriak, bulego horrek finkatu dezan erari jarraituz gertatu ahal izateko.

5.– 44. ataleko 5. idazatian ezartzen den salbuespena kontutan hartuta, ekonomi eta araubidezko kontrolari buruzko txostena eskatu edo eskuratu gabe xedapenari onarpena ematea gerta dadinean, Ekonomi Kontrolerako Bulegoak, txostena eskatu ez denaren berri emango dio Ogasun eta Herri Administrazio sailburuari.

GEHIGARRIZKO XEDAPENAK

*Lehenengoa*.– 1.– Euskal Autonomi Elkarteko Sektore Publikoa osatzen duten izaikietako kide izan eta ekainaren 30eko 14/1994 Legean eta dekretu honetan finkatzen diren kontaduritza eta kontrol egitekoak bete ditzaten langileek, konfidentzialitatea eta isilpekotasuna gorde beharko dute lanaren ondorioz ezagutu ditzaketen gaiei dagokienetan.

2.– Beren egitekoak betetzerakoan eskuratu ditzaketen datu, txosten edo aurrekariak, kontrola eramateko bakarrik erabili ahal izango dira eta, hala behar izan dadinean, administrazio, kontaduritza mailako legehaustea edo delitua izan daitezkeen egintzak salatzeko ere erabili ahal izango dira. Kontrol-txostenez baliatu ahal izatea, agintedun organuei bakarrik dagokie, legeetan eta dekretu honetan xedatzen denaren arabera.

*Bigarrena*.– Otsailaren 2ko 17/1993 Dekretuz onartu eta Euskal Autonomi Elkarteko Administrazioaren eta bere Erakunde Autonomoen Aldezaurreko Agizko Fondoen kontrola, ekonomi, finantza eta kudeaketa mailakoa izango da. Auditoria erako teknikaz burutuko da kontrol hori, aipatu den dekretuko horretako 8. atalean eta dekretu honetan xedatzen denaren arabera.

ALDIBATERAKO XEDAPENA

Dekretu hau garatuko duten xedapenak eman daitezen arte, honako hauek izango dute indarra, dekretu honetan xedatzen denaren aurka egon ez daitezen heinean: obren ziurtagiriak uzteko prozedurari eta Euskal Autonomi Elkarteari egindako prestazioak kreditatuko dituzten agiriei buruzko Ekonomi eta Ogasun Sailaren 1984ko martxoaren 30eko Agindua; inbertsioen ziurtapenen kontuhartze egitekoa betetzeari buruzko Ekonomi eta Ogasun Sailaren 1985eko urriaren 8ko Agindua; Euskal Autonomi Elkartearen Kontaduritza Publikoaren Plana onartzen deneko Okonomi eta Ogasuna Sailaren 1985eko abenduaren 17ko Agindua; Zuzenbide Pribatupeko Izaiki Publikoek eta Sozietate Publikoek, Ogasun eta Finantza Sailera bidali behar duten ekonomi-finantza mailako informazioa finkatzen duen Oga-

competencia del Consejo de Gobierno, podrá, a la vista del informe desfavorable, subsanar los defectos detectados o elevar la discrepancia, en caso de que aquella subsista, al Consejo de Gobierno para que resuelva definitivamente. La elevación citada deberá tramitarse en el plazo previsto en el párrafo segundo del presente artículo, dando traslado del expediente a la Oficina de Control Económico para que, en la forma en que se establezca por ésta, se proceda a la preparación de la documentación necesaria para que el Consejo de Gobierno resuelva la discrepancia correspondiente.

5.– Con la salvedad de lo establecido en el apartado 5 del artículo 44 cuando se aprueben disposiciones normativas sin recabar u obtener el correspondiente informe de control económico-normativo la Oficina de Control Económico dará cuenta al Consejero de Hacienda y Administración Pública de la falta de solicitud de dicho informe.

DISPOSICIONES ADICIONALES

*Primera*.– 1.– El personal de los entes integrantes del Sector Público de la Comunidad Autónoma de Euskadi que desempeñe las funciones de contabilidad y control previstas en la Ley 14/1994, de 30 de junio y el presente Decreto deberá guardar la confidencialidad y el secreto respecto de los asuntos que conozcan por razón de su trabajo.

2.– Los datos, informes o antecedentes obtenidos en el desarrollo de sus funciones solo podrán utilizarse para los fines del control y, en su caso, para la denuncia de hechos que puedan ser constitutivos de infracción administrativa, responsabilidad contable o delito. El acceso a los informes de control solo corresponderá a los órganos competentes de conformidad con lo previsto en las leyes y en el presente Decreto.

*Segunda*.– El control de los Fondos Ordinarios Anticipados de la Administración de la Comunidad Autónoma de Euskadi y sus Organismos Autónomos establecidos por el Decreto 17/1993, de 2 de febrero, será de carácter económico-financiero y de gestión realizándose mediante técnicas de auditoría conforme a lo dispuesto en el artículo 8 del Decreto citado y en la presente norma.

DISPOSICIÓN TRANSITORIA

En tanto no se dicten las disposiciones de desarrollo del presente Decreto, mantendrán su vigencia en lo que no se opongan al mismo, la Orden de 30 de marzo de 1984, del Departamento de Economía y Hacienda, sobre procedimiento para la cesión de certificaciones de obras y documentos acreditativos de prestaciones a la Comunidad Autónoma de Euskadi, la Orden de 8 de octubre de 1985, del Departamento de Economía y Hacienda, sobre ejercicio de la función interventora en la comprobación material de las inversiones, la Orden de 17 de diciembre de 1985 del Departamento de Economía y Hacienda por la que se aprueba el Plan de Contabilidad Pública de la Comunidad Autónoma de Euskadi, la Orden de 30 de diciembre de 1991 del Consejero de Hacienda y Finanzas por la que se estable-

sun eta Finantza sailburuaren 1991ko abenduaren 30eko Agindua.

INDARGABETZE XEDAPENA

Dekretu hau indarrean jartzean, ondoren aipatzen diren xedapen hauek indargabetuta gelditzen dira: Euskal Autonomi Elkarteko Administrazio Orokorrean eta bere Erakunde Autonomo Administratiboetan laginketa-teknikez baliatuz parte hartzea arautzen duen irailaren 17ko 311/1985 Dekretua; dekretu hori garatzen duen Ekonomi eta Ogasun Sailaren 1987ko otsailaren 13ko Agindua eta Euskal Autonomi Elkartearen Administrazio Publikoaren eremuaren barruan ekonomi eta araubidezko kontrola egitea arautzen duen maiatzaren 2ko 119/1990 Dekretua.

AZKEN XEDAPENAK

*Lehenengoa.*– Dekretu hau garatzeko eta betetzeko beharrezkoak diren xedapenak emateko esku ematen zaio Ogasun eta Herri Administrazio sailburuari.

*Bigarrena.*– Dekretu hau, 1995eko abenduaren 1ean jarriko da indarrean.

Vitoria-Gasteizen, 1995eko urriak 31.

Lehendakaria,
JOSÉ ANTONIO ARDANZA GARRO.

Ogasun eta Herri Administrazio sailburua,
JUAN JOSÉ IBARRETXE MARKUARTU.

ce la información económico-financiera que los Entes Públicos de Derecho Privado y Sociedades Públicas deben remitir al Departamento de Hacienda y Finanzas.

DISPOSICIÓN DEROGATORIA

A la entrada en vigor del presente Decreto quedan derogados el Decreto 311/1985, de 17 de septiembre, por el que se regula la intervención por técnicas de muestreo en la Administración General del País Vasco y sus Organismos Autónomos Administrativos, la Orden de 13 de febrero de 1987, del Departamento de Economía y Hacienda, que lo desarrolla, y el Decreto 119/1990, de 2 de mayo, por el que se regula el ejercicio del control económico-normativo en el ámbito de la Administración Pública de la Comunidad Autónoma de Euskadi.

DISPOSICIONES FINALES

*Primera.*– Se faculta al Consejero de Hacienda y Administración Pública para dictar las disposiciones que sean preciso para el desarrollo y ejecución del presente Decreto.

*Segunda.*– El presente Decreto entrará en vigor el día 1 de diciembre de 1995.

Dado en Vitoria-Gasteiz, a 31 de octubre de 1995.

El Lehendakari,
JOSÉ ANTONIO ARDANZA GARRO.

El Consejero de Hacienda y Administración Pública,
JUAN JOSÉ IBARRETXE MARKUARTU.